# Goienkaria

2007ko urriaren 31 > Eguaztena > VII. urtea > 307. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Jakinderen eginkizuna Euskal Herrian dauden beharrak asetzea da"

**Jabier Retegi**
Eusko Ikaskuntzako presidentea > 09




**G2a** Naturako argazkiak Arrasaten > 25

**DOMU SANTUEN EGUNA** Debagoieneko hilerriak lorez eta jendez beteko dira bihar > 02-03

**ARETXABALETA** Giza eskubideak aldarrikatzen dituen mozioa onartu dute > 18

**LEHIAKETA** Topaguneak ikus-entzunezkoen III. rallya aurkeztu du Elgetan > 26


**ERREPIDEAK** > AP-1

## AP-1 irekiko dute 2008 amaieran

Atzeratzeko arrazoia Isuzkitzako tunelean azaldutako anhidrita materiala da > 04

**AZPIEGITURAK** > EUSKAL 'Y'-A

## 2008. urte hasieran ekingo diote AHTren Gipuzkoako lanei

Itsasondo eta Ordizia arteko zatiari ekingo diote, hain zuzen. Iragarpen horrekin batera Lopez de Gereñu sailburuak esan du trena pasatuko den herrietako udalekin batzartuko direla.

AHT Gelditu! Elkarlanak, bere aldetik, AHTren aurkako manifestazio nazionala deitu du Arrasaten, abendurako. >05

**BERGARA** > UDAL TASAK

## Batez beste %3 igoko dira tasak

Ura da aldaketa nabarmenena izango duena > 05



**ZIRKUITUARI BEGIRATUA** Saioa Olite eta Unai Yus ziklistak martitzenean izan ziren Osintxun ibilbidea probatzen. Irudian antolatzaileekin. XABIER URTZELAI

**ZIKLO-KROSA** > OSINTXUKO LEHENENGO ZIKLO-KROSA

# Ziklo-kros proba bihar gurean aspaldiko partez

**OSINTXUN** Bergarako auzo horretan egingo dute eta Lokatza txirrindulari elkarteak antolatu du

**EZAUGARRIAK** 2,5 kilometroko ibilbidea da: errepidean, pistan eta zelaian egingo dute

Bihar, azaroak 1, egingo dute Bergarako Lokatza elkartekoek Osintxuko I. ziklo-kros lasterketa. Hilabeteak daramatzate proba hori prestatzen, eta dagoeneko gertu dago dena. Hala, bihar Osintxura gerturatzen diren zaleek 10:00etatik izango dituzte lasterketak ikusgai, eta 13:00etan korrituko dute azkena, elite eta 23 urtez azpikoena. Aspaldiko partez ziklo-krosa ikusteko aukera izango da Debagoienean.> 24

**AURKIBIDEA**


**Asteko gaia** > 02-03
**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 07
**Gutunak** > 06
**Herriak** > 09-23
**Kirola** > 24
**Kultura** > 26
**Gazteak** > 27
**Sailkatuak** > 28
**Eskelak** > 29
**Telebista-Irratia** > 30
**Non-zer** > 31








**DOMU SANTUEN EGUNA** > HILDAKOAK BENERATZEKO MODUAK MUNDUAN ZEHAR

# Hilerriak jendez eta lorez beteko dira bihar, eguena, hildakoak gurtzeko



ALI RACHID - MAROKO.



JIAN XIONG LIN - TXINA.

**ATZERRITARRAK** Domu Santuen eguna ospatzen den jakin nahi izan dugu, eta horretarako pakistandar, txinatar, marokoar eta mexikarrengana jo dugu

**LANDAREAK ETA LOREAK** Unibertsalak dira: arbasoen hilobi ondoan jartzeko ohitura dago kultura guztietan, nork bere berezitasunekin

**TXINAN ETA MEXIKON** Han jakiak eta Marokon bertako landare bat jartzen dute arbasoen hilobian; Pakistanen ur gozoa eroaten dute hilerrietara

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Domu Santuen eguna izango da bihar, eguena, gurean. Urtean zehar, festa erlijioso asko daude egutegian eta horietako bat biharkoa da: Domu Santuen eguna. Festa berezia eta hunkigarria izaten da herritar askorendako, arbasoak ekartzen dira-eta gogora. Hala, Debagoieneko kanposantuak jendez eta lore sorta ederrez beteko dira bihar.

Azken egunotan, Domu Santuen eguna gertu dagoela igarri da ibarrean. Hilerrietan normalean baino mugimendu handiagoa egon da: horma-hilobiak eta panteoiak garbitzen eta apaintzen ibili dira herritar asko.

Gehienek, hala ere, nahiago izaten dute egun horretan bertan joan. Gurean ez da ospakizun berezirik egiten. Azaroaren 1ean, hilerrietara joateko ohitura dago, besterik gabe.

Bada, bestelako kulturetan hildakoak gurtzen diren jakin gura izan dugu. Hala, Pakistango, Txinako, Marokoko eta Mexikoko ohiturak azaldu dizkigute hango herritarrek. Hona hemen esan digutena:

## Ali Rachid

MAROKOARRA

### "Paradisuko landare bat eramaten diete hildakoei"

Marokon ez dute hildakoak gurtzeko egutegian gorriz markatutako egunik. Hilerrietara egunero joateko ohitura dutela azaldu du Ali Rachidek: "Urteko eguen guztietan joaten da jendea hilerrietara, hilda dauden senideak gogoan izateko", adierazi du marokoar horrek. Ohiturak, hala ere, aldatzen joaten dira, eta, gaur egun, egunero joan ezin den jende asko dago. "Bakoitza ahal duenean joaten da. Hori bai, hilero huts ez egiten saiatzen dira", dio.

**"Pakistanen ez da inolako ospakizunik egiten Muharram egunean; jendeak negar egiten du, lagun maiteak gogoan izaten dituelako"**

Ez dira edozein ordutan joaten hilerrietara. Normalean, arratsalde partean bertaratzen dira: "Egunero bost alditan otoitz egiten dugu Marokon. Goizean, eguerdian, arratsaldean, ilunsentian eta gauean otoitz egiten dugu. Arratsalde eta ilunsenti artean joaten gara. Meskitatik irten eta jarraian joaten gara han hilerrietara", azpimarratu du Rachidek. Otoitz egiten dute han: "Iman bat bilatzen dute eta hark Koranaren zati batzuk irakurtzen ditu hilobi ondoan", dio.

Hildakoei landare autoktono bat eramateko ohitura dago: "Horrek ez ditu loreak ematen, usain berezia du. Esanahi berezia ere badu. Paradisuko landare bat dela esaten da eta hilobi ondoan jartzean, han dagoena ere paradisuan egongo dela uste du jendeak", azaldu du. Hilerri ondoan landare hori saltzen da.

## Carlos Angeles

MEXIKARRA

### "Hildakoak gustukoen zuen jakia prestatzen zuen amamak"

Carlos Angelesek txikitako oroitzapenak ekarri ditu. Mexikon ospakizunek bi egun irauten dutela esan du. Azaroaren 1ean Domu Santuen eguna eta hurrengoan hildakoen eguna egiten dute han. Egun horiek aitona eta amaren etxean ematen zituen Angelesek: "Mahai handi batekin, aldare bat egiten zen etxean. Mahai-zapi loredun batekin apaintzen zen hura. Gainean egurrezko gurutze bat eta hildakoen argazkiak jartzen ziren. Paper txinatarra laukitan moztu eta burezurrak egiten ziren. Aldare gainean botatzen ziren haiek", gogoratu du Angelesek.

"Hil zen pertsonak gustukoen zituen jakiak prestatzen zituen amamak eta argazki ondoan jartzen zituen platerak", gaineratu du. Ospakizunak amaitzen zirenean, jaki horiek bota egiten zirela aipatu du mexikarrak.




**BERGARAKO HILERRIA** Joan zen martitzenean, hainbat lagun zebilen hilobiak atontzen eta loreak eramaten Bergarako hilerrira. M.B.





CARLOS ANGELES - MEXIKO.





SEBAS ALI-RAJA - PAKISTAN.

Hilerrietara ere joaten dira. "Hango hilerriak ez dira hemengoak bezalakoak. Han ez daude horren garbi eta familia bakoitzak bere arbasoen hilobiak garbitu behar ditu", esan du. "Aitonak arrosa-landareak jarri zituen senide baten hilobi ondoan", gogoratu du. Jakiak ere eramaten dira hilerrietara. Egun horietan familiak batzeko ohitura dagoela azaldu du. Eta zona bakoitzean jaki bereziak prestatzen direla ere aipatu du. Hala, Hidalgon, adibidez, hildakoen ogia egiten dela dio: "12 zentimetro inguru duen ogi bat da eta gazta du barruan", aipatu du.

Egun horietan erlijioa jai giroarekin nahasten dute Mexikon. "Oinarri indigena du ospakizun horrek", esan du Angelesek.

### Jian Xiong Lin

TXINATARRA

## "Txinan jaki ugari jartzen dira hilobi ondoan"

Debagoienean eta Txinan egiten denaren artean ez du antzekotasun nabarmenik ikusten Jian Xiong Lin txinatarrak. Hong Kong ondoko herri batekoa da eta jaioterrian ospakizunak "erabat ezberdinak" direla dio. "Hasteko, data bera ezberdina da. Egutegi txinatarra hartzen da kontuan", adierazi du.

Han ere hilerrietara joateko ohitura dute. Horma-hilobiak eta panteoiak garbitzen dituzte. Loreak jarri beharrean, intsentsua jartzen dute hilobi ondoan, baita kandelak ere. Horrez gain, jakiak ere jartzen dituztela aipatu du Jian Xiong Linek: "Gauza asko jartzen dira, hala nola oilaskoa, ahatea eta fruta".

Etxeetan ere biltzen dira txinatarrak: "Mahai baten inguruan elkartzen gara bazkaltzeko eta, era berean, arbasoak gurtzeko". dio. Ibarrean dagoenetik, horrelakorik ez duela egin azpimarratu du Jian Xiong Linek: "Ez dugu ezer berezirik egiten", esan du.

### Sebas Ali-Raja

GURASOAK PAKISTANDARRAK DIRA

## "Hilerrietara ur gozoa eramateko ohitura dago"

Sebas Bergarakoa da, baina ondo daki arbasoen herrialdean hildakoak nola gurtzen dituzten. Gurasoak pakistandarrak dira, eta jaioterriko ohiturak erakutsi dizkiote semeari.

Pakistanen Muharram deitzen diote egun horri. Bi modutan beneratzen dituzte hildakoak: batzuk hilerrietara joaten dira eta ur gozoa eramaten dute, han biltzen diren senideek edan dezaten.

"Jende asko elkartzen da hilerrietan, eta ur gozoa eramateko ohitura dago. Hildakoak gurtzen hasi ziren aspaldiko garai hartan lehortea zegoen eta ura falta zen. Horrelakorik berriro gerta ez dadin, ordutik hona, ura eramaten dute hilerrietara", azaldu du Ali-Rajak.

Beste batzuk, berriz, etxean geratzen dira eta "norberaren bizkarra jipoitzen dute, odoletan hasi arte. Errudun sentitzen dira, eta, modu horretan, arima garbitzen dutela uste dute horiek. Ohitura kontua da guztia", azpimarratu du gazte horrek.

Muharram ez da egun zehatz batean egiten: "Aldatzen joaten da beti. Ilargiaren araberakoa izaten da. Urtero hamar egun atzeratzen da", jakinarazi du.

Oso egun tristea dela ere azpimarratu du Ali-Rajak: "Ez da inolako ospakizunik egiten. Jendea triste dago eta negar egiten du, lagun maiteak gogoan izaten dituelako", gaineratu du.

Modu batean edo bestean bada ere, hildakoei errespetu handia zaiela eta beneratzen direla ondoriozta daiteke, azken finean.

## Arrasateko hiribusak San Kristobal hilerrira joan eta etortzeko zerbitzuak indartuko ditu

Gaurtik, hilaren 31tik, indartuko da Arrasateko San Kristobal hilerrirainoko joan-etorria. 10:00etatik 12:00ak bitartean, orduro egongo da autobusa. Arratsaldean, 15:00etan hasiko da eta 18:00etara arte ibiliko da. Domu Santuen egunean, berriz, ordu erdian behin ibiliko da, 20:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 18:30ak arte.

Debagoieneko hilerri batzuek, bestalde, ordutegi berezia izango dute azaroaren 1ean. Hala, Bergarakoa 08:30etik 20:00ak arte egongo da zabalik gaur. Bihar, berriz, 08:00etatik 20:00ak arte. Arrasatekoak eta Oñatikoak ere Bergarako ordutegi bera izango dute. Antzuolan ordubete geroago zabalduko dituzte goizean hilerriko ateak: 09:00etatik 20:00ak arte egongo dira zabalik. Aretxabaleta, Elgeta, Aramaio, Eskoriatza eta Gatzagako kanposantuak zabalik daude beti, eta, beraz, ez dute ordutegi berezirik izango Domu Santuen egunean.

Hezurren kalitatea zain ezazu.
Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa
ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

**ERREPIDEAK** > AP-1 AUTOBIDEKO LANAK ATZERATUTA

# AP-1 autobidea ez dute guztiz irekiko 2008ko bukaerara arte

Atzerapenaren arrazoia da anhidrita izeneko materiala azaldu dela Isuzkitzako tunelean eta horrek aparteko lanak egitea eskatzen duela

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Eneko Goia Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako diputatuak astelehenean Gipuzkoako Batzar Nagusietan adierazi zuenez, gutxienez urtebete atzeratuko dira Eibar-Gasteiz (AP-1) autobidearen lanak Gipuzkoan. 2008ko urtarrilerako autobidea osorik zabaltzea zegoen aurrez ikusita. Orain, baina, 2008. urte amaieran zabalduko dutela iragarri dute.

Goiak azaldu zuenez, anhidrita izeneko materiala azaldu da Isuzkitzako (Arlaban) tunelean; material horrek, hidratazioarekin, %60 handitzen du bolumena eta horrek tunelean lurrak eragiten duen presioa asko areagotzen du. Horregatik, tunelen estaldura indartzeko lanak egin beharko dituzte.

Lanok hasiko dituzte bihar bertan, azaroak 1, eta 2008ko irailaren 30ean amaitzea aurrez ikusten dute.

Anhidrita azaldu izana da lanak atzeratzearen arrazoi nagusia, baina ez bakarra; badira beste arrazoi batzuk, Eneko Goia diputatuak astelehenean azaldu zuenez: Apotzaga eta Gurutzetxiko tunelen inguruko lurren ezegonkortasuna; lursailak eskuratzeko atzerapenak, alegazioak aurkeztu dituztelako; erreklamazioak direla-eta lanak geratu behar izana hainbat zatitan; eta Eskoriatzako Udalarekin eta hainbat biztanlerekin adostutakoaren arabera proiektuari hainbat aldaketa egin izana.

Eneko Goiak ez zuen zehaztu lan berri horiek zelako eragina izango duten proiektuaren aurrekontuan.

**AP-1 ZATIZ ZATI**

**> EIBAR - BERGARA IPARRA**
- Aurrekontua: 140 milioi euro.
- Luzera: 7,2 kilometro.
- Zabalik: 2003ko abendutik.

**> BERGARA IPARRA - HEGOA**
- Aurrekontua: 77 milioi euro.
- Luzera: 4,2 kilometro.
- Zabalik: 2004ko uztailetik.

**> BERGARA HEGOA - ARRASATE**
- Aurrekontua: 71 milioi euro.
- Luzera: 3,5 kilometro.
- Zabalik: 2005. urteko uztailetik aurrera.

**> ARRASATE - ESKORIATZA**
- Aurrekontua: 106 milioi euro.
- Luzera: 6,3 kilometro.
- Zabalik: 2008 bukaeran.

**> ESKORIATZA - ISUZKITZA**
- Aurrekontua: 192 milioi euro.
- Luzera: 10,8 kilometro.
- Zabalik: 2008 bukaeran.

**> ISUZKITZA - GASTEIZ**
- Aurrekontua: 122 milioi euro.
- Luzera: 12,9 kilometro.
- Zabalik: Erabakitzeke. 2008ko urtarrilean lanak bukatuta.

**ARABAKO ZATIA URTARRILERAKO**

Arabako Foru Aldundiak dihardu AP-1 autobidearen Arabako zatia eraikitzen. Bi zatitan dihardute: Isuzkitza-Luku eta Luku-Etxabarri-Dibina. Lehenengo zatia da 6.700 metrokoa eta bigarrena 6.200 metrokoa. Guztira, lanen aurrekontua zen 122 milioi euro. Dena dela, gaur bertan, eguaztena, prentsaurrekoa egitekoak ziren Diputazioko arduradunak, aurrekontuaren igoera baten berri emateko.

Arabako Diputazioko iturrien arabera, 2008ko urtarril bukaerarako lanak amaituta egotea espero dute. Arabako zatian, hortaz, atzerapena oso txikia izango da, 2008ko urtarrilaren 1erako bukatzea espero zuten-eta.

Hala ere, Arabako zatiak zirkulazioarendako noiz zabalduko dituzten beste kontu bat da; hori oraindik ez dute erabaki Arabako Foru Aldundiko arduradunek. Segurtasunaren aldetik arazorik ez badago 2008. urtean zehar zabalduko dute eta horixe egiten saiatuko dira. Zabaltzekotan, ez dute ordainsaririk kobratuko Gipuzkoako zati osoa zabaldu arte.

**TURISMOA**

# Turismo bulegoak zubian zabalik

Eskoriatza eta Leintz Gatzagako museoak eta Arrikrutz koba ere zabalik egongo dira

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Domu Santuko zubiarekin batera, eskaintza berezia egingo dute Debagoieneko turismo bulegoek azaroaren 1ean hasi eta 4ra arte. Hala, Bergara, Eskoriatza, Oñati, Leintz Gatzaga eta Arantzazuko bulegoak goiz eta arratsalde egongo dira zabalik bertoko zein kanpoko bisitarien eskaerei erantzuteko.

Horrekin batera, bulegoetako batzuek bisita gidatuak ere eskainiko dituzte: Bergarakoak eta Oñatikoak herriko gune historiko-monumentalean barrena; Leintz Gatzagakoak Gatz Museoan eta Arantzazukoak, santutegian.

Oñatiko Arrikrutz koba ere zabalik egongo da 10:00-14:00/15:00-18:00 ordutegian. Txanda aldez aurretik hartzea komeni da (943 08 20 00).



**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# AHT igaroko den herrietako udalekin batuko da Jaurlaritza

Lopez de Gereñuk iragarri du 2008. urte hasieran ekingo dietela AHTren Gipuzkoako zatiko lanei, Itsasondo eta Ordizia artean

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Lakuako Garraio eta Obra Publikoen sailburu Nuria Lopez de Gereñuk zapatuan egin zuen agerraldia Donostian. Hantxe iragarri zuenez, 2008. urte hasieran ekingo diote Abiadura Handiko Trenaren Gipuzkoako lehenengo zatia eraikitzeari, Itsasondo eta Ordizia arteko zatia, hain zuzen ere. Zati horrek izango du 2.860 metroko luzera –horietatik 2.814 metro tuneletan– eta 60.290.000 euroko aurrekontua.

Hamalau UTE (aldi baterako enpresa elkarteak) aurkeztu dira lanok egiteko eta azaroan edo abenduan esleituko dizkiote horietakoren bati lanak egiteko ardura. Behin lanak hasita, 31 hilabeteko epea (bi urte eta zazpi hilabete) izango dute enpresek lanak amaitzeko.

**UDALEKIN BATZARRAK**

Lopez de Gereñuk azpimarratu zuen erakundeen artean harreman handia egon dela AHTren proiektuaren gainean informazioa zabaltzeko. Horrekin lotuta, adierazi zuen Abiadura Handiko Trena igaroko den Gipuzkoako herrietako alkateekin datozen asteetan elkartuko direla eta batzar horietan informazio zuzena eta zabala emango zaiela alkateei; gaineratu zuen AHTren lanek ahalik eta eragin txikiena izateko elkarlana bultzatuko duela Jaurlaritzak.

MOBILIZAZIOAK



AHT Gelditu! Elkarlana taldearen prentsaurrekoa, Bilbon, atzo. AHT GELDITU! ELKARLANA

## AHTren aurkako manifestazioa Arrasaten

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazio nazionala antolatu du abenduaren 15erako, Arrasaten, *Inposiziorik ez! AHT gelditu!* lelopean. Martitzenean egin zuten horren berri emateko prentsaurrekoa Bilbon. Bestalde, azaroaren 22an agintari politikoen aurrean egingo dituzte kale bilkurak eta azaroaren 29an enpresa eraikitzaileen egoitzen aurrean.

**EUSKARA** > JARDUNALDIAK

# Euskara elkarteen ibilbideaz jardungo du Topaguneak

Jardunaldiak azaroaren 23an izango dira, Donostiako Miramon teknologia parkean

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, hamar urte beteko ditu aurten. Orain arteko ibilbideari gainbegiratua emateko eta aurrera begirako ildoak osatzeko, *E2I: Euskara Elkarteak ibilian* jardunaldiak antolatuko ditu. Azaroaren 23an izango dira, Donostiako Miramon teknologia parkean.

Euskara elkarteek izandako esperientzien berri emango dute, besteak beste. Hala, Arrasateko AEDren ibilbide luzea azalduko dute. Topagunearen kide zaharrena da hori; datorren urtean 25 urte beteko ditu.

**MANKOMUNITATEA** > ENPRESAK ETA EUSKARA

# Euskara planen gaineko jardunaldia Arrasaten

Enpresetako langileen ordezkariei zuzenduta dago jardunaldia eta Kulturaten izango da, azaroaren 8an

**A.I.** > ARRASATE

Lan esparruko euskara planen gaineko jardunaldia antolatu dute azaroaren 8rako Mankomunitateak eta udalek. Jardunaldia enpresa komiteetako ordezkariei zuzenduta dago.

Arrasateko Kulturaten izango da, eta landuko dituzten gaien artean, aipagarriena da sindikatuen euskara planetan jokatzen duten paperaren gainean jardungo dutela. Hainbat enpresatako euskara planak ere aurkeztuko dituzte bertan.

SAN FELIPE APOSTOL
ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
www.sanfelipeapostol.com

Gipuzkoa etorbidea 33, behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkartearen 109. urteurrena dela eta, Zuzendaritza batzordeak bazkideei eta herritarrei oro har ondoan aipatzen diren aspektuen berri eman nahi die.

**1. ERAKUNDEA** San Felipe Apostol erakundea IRABAZI ASMO GABEKO elkartea da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Departamentuan erregistratuta dago, **1898an sortu zen** eta **12.865 bazkide** ditu.

**2. ZERBITZUAK**
San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:
- **Espainiako Estatu Barruan** egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea.
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoen jantze lanak.
- Auzitegian egin beharekoak. Mediku ziurtagiria
- **550** euroko dirulaguntza, hildako bakoitzagatik.
- Sarrera 40 urtera arte doan.

**3. URTEKO KUOTAK**
Titularrak: 21 €
Ezkontidea: 21 €
Onuradunak: 10 €

INFORMA ZAITEZ ETA EGIN BAZKIDE!!



**Zuzendaritza Batzordearen kideak:**
Juan Jose Alzola (Bokala), Agustin Garcia (Bokala), Juan Jose Garmendia (Bokala), Alberto Ojanguren (Maiorala), Kontxi Bedia, Jose Maria Kortabarria (Bokala) eta Agustin Etxebarria (Bokala).
**Eserita:** Marcelino Gonzalez (Bokala), Jose Ignacio Elorza (Idazkaria), Jose Luis Yarza (Lehendakaria), Jose Antonio Etxebarria (Diruzaina) eta Migel Sarasola (Lehendakariordea)

# Euskara elkarteen ibilbidea

**Jasone Mendizabal Altuna**
(Topaguneko zuzendaria)
Abadiño

Datorren urtean AEDren zilar ezteiak ospatuko ditugu Arrasaten. Euskara elkarte honen sorreran aritu zirenek nekez aurreikusiko zuten orduan erditutakoak hartuko zuen gorpuzkera, ezta 25 urte bete dituen gazte honek garatuko zuen nortasuna ere. Herri mailako elkartea, euskaldunentzat bilgune izango zena, euskaraz bizitzeko aukerak irabazten eta euskararen erabilerari tokia egiten urtez urte txindurri lanean aritu da. Herriko beste eragileekin elkarlanean aritzeko bokazioaz, euskararen berreskurapenean zentratuta bazkideen aniztasuna izan du oinarri, adinez, pentsaeraz, lanbidez zein afizioz ezberdin zirenak batuz eta euskararen aldeko borondateak gehituz. Euskaldunon ahuldadea ezagututa, alferrikako eskakizunak albo batera utzi eta Arrasateko euskaldunek behar zituzten zerbitzuak euskara elkartetik bertatik sortzeari ekin zioten AEDko bazkideek. Hori guztia behar zen tokian exijitu beharrekoa exijituz, eta bereziki Udalaren inplikazioa, laguntza eta elkarlana bilatuz.

Pentsamendu eraikitzaile hau garatzen AED aitzindari izan zen eta ordutik Euskal Herrian ehunetik gora euskara elkarte sortu dira. Hauen arteko gehienak Topagunean batu dira eta federazio honek ere 10. urteurrena ospatzen du aurtengoan bere 90 bazkideekin batera. Euskara elkarteak ekintzaileak izan dira beti eta *egiten* egin dute bidea, horren erakusle dira egun hain ezagunak ditugun hainbat ekintza programa: haur eta gazteen aisialdia euskalduntzeko plangintzatan kokatzen diren programak, entitateak euskaldutzekoak, tokiko hedabide euskaldunak sortzen egindako ahaleginak, herrietako kultur dinamikak aberasteko ekimenak eta azkenaldian horrenbeste ugaltzen ari diren mintzapraktika programak.

Euskara elkarteen sareak osatzen duen mugimendua gaztea da eta gazte izanagatik sortzaile sutsuak izan dira euskara elkarteak. Horietako bakoitzak berea eman dio mugimendu honi, lan egiteko moduetan, pentsamendua garatze bidean emandako ikuspegietan, esparru berriak jorratzen, ekintza originalak sortzen,… sare honen ezaugarri aberasgarrienetakoa aniztasuna delarik. Tokian tokiko ezaugarriei atxikiak, egoera berriei egokitzen asmatu beharrean aurkitu dira euskara elkarteak eta elkarren arrimura, esperientziak elkartrukatzen Euskal Herri mailako mugimendu erreferentziala osatzen dute euskararen erabileraren sustapenean.

Mugimendu gazte honek mende laurdenean sortutakoa ez da ahuntzaren gauerdiko eztula: 90 euskara elkarte federatu, 300 langiletik gora, 10.000 bazkide baino gehiago, 50 tokiko hedabide, 40 mintzapraktika programa martxan, urtero ehunka kultur ikuskizun, tailer, lehiaketa, bertsoeskola eta jaialdi herriz herri, elkarteak, saltokiak eta ostalaritza euskalduntzeko hamaika programa… Horiek denak euskararen erabilera areagotzeko helburuaz antolatuak.

Euskara elkarteen mugimenduaren gaztaroan egin dira horiek guztiak, baina 25 urterekin motxilan gaztaroa atzean utzi eta garai berriei heldutasunez heltzeko momentua izan daitekeelakoan nago. Heldutasunez lan egiteak eskarmentuak emandako ezagutzaz lan egitea esan nahi du eta baita egin denaren jabe izanik egin nahi denaren kontzientzia garbia izatea ere. Etorkizun horri heltzeko gogoeta garaia da hau, hainbat eta hainbat euskara elkartetan ematen ari dena eta federazioaren bidez bereziki, Topaguneak azaroaren 23rako Donostian antolatu dituen jardunaldietan jorratu nahi dena.

Aurreko lerroetan gogora ekarri dut euskara elkarteek zerbitzugintzan jorratutako bidea. Euskaraz mintzatzeko tan horretarako aukerak behar ditugu euskaldunok eta horiek sortzen nahikoa lan izan dugu eta jarraituko dugu izaten aurrerantzean ere. Hala ere, hori ez dela nahikoa ere badakigu. Euskaraz hitz egiteko aukera izateak ez du bermatzen horretarako motibatuta egotea, euskaraz hitz egitekotan horretarako gogoa izan behar dugu eta gogoa izatea norbanakoaren mundu psikologikoan oso gorabeheratsua eta hauskorra den kontzeptua da.

Euskara elkarteen heldutasun aroan sormenean ez ezik, giza psikologian sakondu eta horiek aintzakotzat hartuz gure diskurtsoak eta mezuak berritu eta landu beharko ditugula uste dut. Euskara elkarteen ekintzatan erakargarritasuna ezinbesteko ezaugarria den moduan, mezuetan eta diskurtsoan ere horretan asmatzen izango dugu erronka. Mezu eta diskurtso hutsek ez dute balioko, lehenik eta behin euskarazko kultur adierazpideak *izan* izan beharko du erakargarri eta horretan sortzen, berritzen eta eredu gozagarriak eskaintzen izango dugu lanik. Baina ondoren, eta hementxe dugu erronka, egiten dugun hori komunikatzen asmatu behar dugu. Euskaraz bizi nahi dutenengana heldu behar gara lehentasunez, gune sinboliko honen baitan sortuko baitira sortzekotan euskarazko kultur adierazpide eta dinamika berriak. Baina era berean, euskaldunak izanik erdal kulturan murgilduta bizi direnei euskaraz bizitzea posible dela eta gozagarria dela adierazteko behar beste zirrikitu eta aukera bilatu beharko ditugu. Baina eta Euskal Herri honetan euskaraz oraindik ikasi ez dutenei eta baita ikasiko ez dutenei ere nor garen eta zer nahi dugun adierazi beharko diegu, euskaldunok ikusezinak izateari utziko badiogu. Gure hizkuntza komunitateak aurrera egingo badu, bertako erdal komunitateen konplizitatea eta aldekotasuna ere beharko duelakoan nago eta hortik urrun samar gaude oraindik. Honetan guztian euskara elkarteek ez ezik euskalgintza osoak esku bete lan daka.

# Berri ona

**Mikel Arantzabal**
Bergara

Aurrekoan irakurri nuen GOIENKARIAn bidegorria egingo dutela aurki Maltzagatik Urretxuraino eta beste egunkari batean irakurri nuen Maltzagatik Elgoibarrerako zatia ere egingo dutela. Badirudi berandu baino lehen, Debaraino joan ahal izango gara bizikletan nahi badugu, nahiz eta oinez ibiltzeko egokiagoak diren planteatzen diren bidegorri horiek. Ordua zen! Pozteko berria da, zalantza barik. Halakoak beti dira-eta ongi-etorriak.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

**www.goiena.net/blogak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| /aebpn | /denetik | /gertu | rri | /pando |
| /aiastui | /dragon-oriental | /gorkataxi | /lorelan | /puerta-ingles |
| /aretxargi | /dukiena | /gurea | /korozabaleta | /richimaier |
| /argi-plastik | /ego | /guztizeder | /markiegi | /tabernaberri |
| /arregi | /ekilore | /hamaika | /maulanda | /udalaitz |
| /atai | /ekin | /itxaseder | /mayte | /urdeki |
| /azkarate | /elejalde | /irudisport | /merkeopari | /ugartearotza |
| /bastida | /ezkutuorly | /ixaun | /multiopticas | /urbieta |
| /briz- | /galgorri | /izeder | /ohiak | /urko |
| aseguruak | /gallastegi | /jracing | /ogizun | /vitoria |
| /BZ-sistemas | /ganesha | /joseba | /okipark | /zainduz |
| /bolusukaldeak | /garaia | /lamaino-etxebe- | /otzeta | /ziripot |

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.amgautoak.com**
**www.baster-aldejatetxea.com**
**www.ehmff.com**
**www.gelatzu.com**
**www.goikobenta.com**
**www.haurtxoa.com**
**www.klorofila.com**
**www.landaluze.com**
**www.lilura.com**
**www.toldoslete.com**
**www.uxarte.net**



Urriaren 25ean aurkeztu zuten Jakiunde, Donostian. Ekitaldian, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Eusko Ikaskuntzako presidente Jabier Retegi egon ziren. Eta, hain zuzen, Jakiunderen sorkuntzaren, lortu nahi diren helburuen eta akademia osatzen dutenen gainean hitz egin digu Retegik.

**Jabier Retegi** > Eusko Ikaskuntzako presidentea

# "Jakiunderen eginkizuna Euskal Herrian dauden beharrak asetzea da"

JASONE ZABALA> ARRASATE

**Eusko Ikaskuntzako presidentea da Jabier Retegi bergararra. Eusko Ikaskuntzaren Zientzia, Arte eta Letren Akademia berriaren aurkezpen ekitaldian egon zen, eta berak aukeratu du Etxenike akademiako lehen lehendakari izateko.**




Jabier Retegi astelehenean, izan genuen GOITBko platoan. GOIENKARIA

**Eusko Ikaskuntzak Jakiunde sortu du, zientzia, arte eta letren akademia. Zein helbururekin?**

Azken batean, urte asko daramatza Eusko Ikaskuntzak horren atzetik. Goi mailako pertsonak elkarrekin pentsatzen jartzea da helburua, gure herri honek etorkizunari begira dituen premiak zeintzuk diren jakiteko.

**Horren premia sumatu duzue, beraz?**

Bai, duda barik. Eta aspaldidanik, gainera. Hutsunea dago Euskal Herrian gai honi buruz. Komenigarria da erreferente batzuk izatea, eta guk ez dauzkagu hainbeste. Horregatik, Jakiunde gure erreferente hartzen badugu, Euskal Herriko goi mailako jendea jartzen bada elkarrekin pentsatzen, gauza onak aterako direla uste dut.

**Zergatik sortu da orain Jakiunde. Ez al zegoen orain arte halako akademiarik sortzeko beharrik?**

Hamar urte izango dira ideia hau martxan jartzen hasi zela. Urte hauetan zehar zaila izan da jendea konbentzitzea halako akademia bat sortzeko beharraz. Hainbat erakunderekin elkartu gara, eta, horrekin batera, lurraldeak ere kontuan hartu behar ditugu, Eusko Ikaskuntza EAEn, Iparraldean eta Nafarroan baitago. Azkenean, borondatea aurretik jarri da, eta gure ustez orain da momentu aproposa halako zerbait sortzeko.

**Pedro Migel Etxenike izango da Jakiundeko lehen lehendakaria, eta hark hilaren 25ean egin zen aurkezpen ekitaldian hauxe esan zuen: "Beldurrik gabe azalduko dugu dakigunaren egia". Beraz, pentsatu behar dugu kritiko izateko beldurrik gabe jardungo duela Jakiundek?**

Bai, zerbait eduki behar bada, hori kontzientzia kritikoa da. Baina ez kritikoa izan eguneroko gaietan, horretarako politikariak daude-eta. Goi mailatik begiratu behar dugu; azken baten, ikusi behar da zein hutsune dituen Euskal Herriak, eta horrekin oso kritiko izan beharra dago, denok kontura gaitezen norantz joan beharra daukagun, zein erabaki hartu behar ditugun gaur, eta bide horietatik joan.

**Erakunde aholkulari eta euskal gizartearentzat erreferentziazko foro moduan definitu duzue akademia. Zertan nabarituko du gizarteak haren eragina?**

Nik uste dut lehenengo akademiak bere barrutik sortzen diren informeak eta kritikak azaldu behar dituela gizartera, inork eskatu gabe. Bestalde, erakundeek eska diezaiokete akademiari aholkulari gisa jardun dezan; eta hirugarrenez, Eusko Ikaskuntza. Hark 15 sail zientifiko dauzka, eta haren lana da horiek bideratzea. Horretarako, akademia beharrezkoa da.

SORRERA

**"Hamar urte izango dira ideia hau martxan jarri zela, eta orain ikusi du argia"**

HELBURUAK

**"Goi mailako pertsonak elkarrekin pentsatzen jartzea, gure herriaren etorkizunari begira"**

DEBAGOIENDARRAK

**"Debagoiendarra naizen neurrian harro sentitzen naiz gure bailarako lau pertsona garrantzitsu akademiaren barruan egonda"**

**Presidentea Pedro Migel Etxenike izango da. Zergatik aukeratu duzue hura?**

Aukera nirea izan da. Araudiak horrela esaten duelako, Eusko Ikaskuntzako presidenteak aukeratzen duela lehen lehendakaria. Gainera, aho batez Etxenikeren izena atera zen, pertsona eraginkorra delako eta jende guztiak konfiantza duelako harengan.

**Harekin batera euskal gizarteko beste 25 lagunek jardungo dute, eta tartean lau debagoiendar izango dira: Itziar Astiazaran aretxabaletarra, farmazialaria; Mari Carmen Gallastegi bergararra, ekonomialaria; Jon Markaide elgetarra, astronomoa; eta Jesus Mari Ugalde bergararra, kimikari-fisikaria.**

Debagoiendarra naizen neurrian harro sentitzen naiz. Lau pertsona horiek aurretik ere sarituak izan dira, Eusko Ikaskuntzako Ikerketa sariarekin. Ohore handia da bailararako.

**Zergatik aukeratu dituzue 25 pertsona horiek? Zertan oinarritu zarete?**

Sarituak izan direlako denboran zehar. Haiek dira akademiaren oinarria osatzen dutenak. Baina aurrera begira, bertako kide kopurua handiagoa izango da.

**Nolakoa izango da lan dinamika?**

Osoko bilkurak egingo dituzte. Urtean 2-3 aldiz elkartuko dira. Barruko lan sakona egin beharko da, baina osoko bilkuran hartuko dira erabakiak.

**Zer esan nahi du jakiunde hitzak?**

Jakinduriaren inguruko hitz bat ibili ginen topatzen. Euskaltzaindira jo genuen, galdetzeko ea zein zen akademia bat izendatzeko izenik egokiena, eta Jakiunde esan ziguten; hitz leuna dirudien arren, eta hasieran arraroa izan daitekeen arren, seguru nago azkenean ohituko garela esatera.


Txartel bat bezain bizkorra den kreditua
Txartel itxura dauka, baina txartel hutsa baino askoz ere gehiago da.
Hain da kreditu azkarra non ez dagoen eskatu beharrik ere. Poltsikoan eraman dezakezu. Eta era guztietako erosketak finantzatzeko balio dizu.
Zeuk erabakiko duzu noiz eta zenbateraino erabili, baita diru hori nola itzuli nahi duzun ere. Itzultzen duzun kopurua berriz ere erabilgarri izango duzu zure txartelean. Berehala, eta era iraunkorrean.
Eskura ezazu zeure MasterCard Txartel Urdina, 901 333 555 telefono-zenbakira deituta. Hartara, zernahitarako kreditua izango duzu.
kutxa
MasterCard Txartel Urdina
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa




**> ARRASATE**
Zebrabidea egokituko dute Monterron parean **> 12**





**> OÑATI**
Gabonetako argiak ipintzeko lanak esleitu dituzte **> 16**





**> ARETXABALETA**
Giza eskubideen aldeko mozioa onartu du Udalak **> 18**





**> ANTZUOLA**
Baserriak aztertuko dituzte ur hornidura eta saneamendua hobetzeko **> 21**


**ARETXABALETA** > ELKARHEZITZEN LAN TALDEAREN ESKUTIK

# Genero eta Lankidetza topaketa hurrengo asteburuan Aretxabaletan

**HELBURUA**
Esperientzia trukaketa da topaketaren helburu nagusietako bat

**PARTE HARTZEA**
Emakumearen aurkako nazioarteko egunari begira parte hartzera deitu dute

**ARETXABALETAN**
Galartza Etxean egingo dituzte jardunaldiak



**EMAKUMEA** Genero biolentziaren arazoa gainditzeko lanean ari diren hainbat erakunde eta elkartek hartuko dute parte jardunaldietan. ARTXIBOA

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Elkarhezitzenek, Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lan taldeak, Genero eta Lankidetza Topaketa iragarri du hurrengo astebururako, azaroaren 9, 10 eta 11rako. Emakumearen aurkako indarkeria azaroan ospatuko den nazioarteko egunari begira, parte hartzera deitu du Elkarhezitzenek. 2000. urtean sortua, Mugarik Gabeko Ingeniaritzak, Harremanek, Hiruatxek, Sersok eta Activ@s por un mundo solidario taldeek osatzen dute Elkarhezitzen.

Esperientzia trukaketa da topaketaren helburu nagusietako bat eta hori dela eta, genero biolentziaren arazoa gainditzeko lanean ari diren hainbat erakunde eta elkartek hartuko dute parte. Jardunaldiok Aretxabaletako Galartza Etxean egingo dira eta izenematea (doanekoa) 675 70 96 34 telefonora deituta edota *elkarhezi@yahoo.es* helbidera idatzita egin daiteke.

**EGITARAU ZABALA**

Esan bezala, azaroaren 9tik 11ra bitartean egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek. Egubakoitzeko jardunaldian, 18:00etan, neoliberalismoa eta pobreziaren feminizazioa izango dute aztergai. Arantxa Basagoiti bilbotarra izango dugu hizlarietako bat. *Emakumea eta globalizazioa* gaia jorratuko du, 18:45ean. Elizbarrutietako Misioak gobernuz kanpoko erakundean ibilitakoa da Basagoiti. Bere hitzetan, "globalizazio neoliberalaren gainean argi apur bat jartzen saiatuko gara. Baina ez da ohiko hitzaldia izango; nahiago dut sarrera moduko bat egin eta jendeak parte hartzea. Oso interesgarria iruditzen zait Elkarhezitzenek duen lan egiteko modua eta hausnarketarako aukera ona izango dugu Aretxabaletan. Etorkizunera begira bideak zabaltzea eta bide horretan emakumeoi dagokigun zeregina aztertuko dugu. Eta emakumeoi buruz ari garenean gizonei buruz ere ari gara. Hain zuzen, domekarako *Hombres por la igualdad* tailerra iragarrita dago eta oso interesgarria gerta daiteke".

**EMAKUMEEN ERREALITATEA**

Ideiak eta esperientziak trukatzea da kontua. Hainbat tokitako emakume taldeen errealitate soziala eta kulturala ezagutu nahi dira eta, honekin lotuta, Mexikotik, Ciudad Juarezetik datozen bi emakumeren testigantza entzuteko aukera izango da zapatuan, 10:00etan. Era berean, musikarako edo ipuin kontalariendako tartea ere izango da Aretxabaletako jardunaldietan. Emakumeak zein gizonezkoak gonbidatuta daude.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Morales | Arabako etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 28 | Morales | Arabako etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 29 | Ruiz Perez | Nafarroa etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 30 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 31 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 1 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 2 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 28 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 29 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 30 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 31 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 1 | Alvarez-Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 2 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 28 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 29 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 30 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 31 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 1 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 2 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 28 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 29 | Anitua Arriola | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 30 | Anitua Arriola | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 31 | Anitua Arriola | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 1 | Anitua Arriola | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 2 | Anitua Arriola | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitalea....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Eguena, 1**

Eguraldi ona baina freskoa egingo du. Goizean behe lainoa izango da baina eguerdirako garbitu egingo du. Eguzkiak pixka bat berotuko du orduan.



**Egubakoitza, 2**

Behe lainoarekin esnatuko da eguna baina eguerdirako garbituko du. Eguenean baino tenperatuta altuxeagoak.

### EUSKAL HERRIAN

Ipar haize finak eguraldi freskoa mantenduko du eguen zein egubakoitzean. Goizean behe lainoa izango da eta garbitze aldera egingo du goizak aurrera egin ahala. Hala, eguzkiak eguraldia zertxobait epelduko du eguerdian. Gauean hoztu egingo du. Giro ona baina freskoa.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Domeka eta astelehena — **4 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 28 — **21 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **11,3 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 24** | 16 ºC | 12 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 25** | 12 ºC | 10 ºC | 0,8 l/m² |
| **Egubakoitza, 26** | 13 ºC | 9 ºC | 0,4 l/m² |
| **Zapatua, 27** | 15 ºC | 7 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 28** | 21 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 29** | 11 ºC | 4 ºC | 10,1 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA AZAROAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **1** | **11** | **17** | **24** |

## oharrak eta deialdiak

ANTZUOLA
**> Erretiratuendako gaztaina jana**
Azaroaren 15ean izango da, Olaranen. Parte hartzeko izena eman beharko da azaroaren 5etik 8ra bitartean, 15:00-18:00 ordutegian, elkartearen egoitzan.

ARRASATE
**> Spinning saio berrirako izenematea zabalik**
Izandako arrakasta eta itxaron zerrendak ikusita spinning saio berria antolatu du Kirol Zerbitzuak. Ohiko saioak dira martitzen eta eguenetan, 07:15ean eta 15:00etan. Horietan taldea eratzear dago. Saio berria izango da 17:30ean eta izena ematen duten lehen 15ek hartuko dute parte.

BERGARA
**>1980an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Azaroaren 17an egingo dute, Tartufon. Izenematea da azaroaren 9ra arte, Euskadiko Kutxan –20 euro sartu behar dira–.

ARRASATE
**>1942an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Azaroaren 17an egingo dute. 12:30ean meza entzungo dute San Frantzisko elizan eta gero joango dira bazkaltzera. Izena emateko deitu, ohi bezala, Mari Carmen Aranbururi.

ARRASATE
**> Behin-behineko izaerazko hiru lanpostu**
Obra teknikari, obra ikuskatzaile eta saneamendu eta mantentze-lan teknikari lanpostuak betetzeko deialdia egin du Udalak. Informazio gehiago: *www.arrasate-mondragon.org* helbidean.

ANTZUOLA
**> Jaietako euskal ezkontzaren DVDa salgai**
Anelkar elkartasun taldeak salgai jarri du uztailaren 14an eta 15ean hainbat herritarrek antzeztu zuten euskal ezkontzaren DVDa. Zazpi euroko prezioan jarri dute salgai eta eskura daitezke Izar liburu dendan. 50 DVD kaleratu dituzte. Ezkontzako grabazioaz gain, argazkiek eta soinu bandak osatzen dute DVDa.

BERGARA
**> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Azaroaren 10ean egingo dute, Zumelagan. 14:00etarako argazkia egiteko hitzordua egin dute, olibondoen plazatxoan. Izena emateko deitu 943 76 15 88 edo 943 76 22 22 zenbakira.

BERGARA
**>1945ean jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxin. Izenematea da 40 euro, Kutxan. Informazio gehiago: 943 76 34 58 (Rosarito).

BERGARA
**>1966an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute, Torrekuan. Izena emateko jo Ariznoara azaroaren 19a baino lehen –10 euro aurreratu behar dira–. Afari egunean 19:30ean elkartuko dira Ariznoan.

BERGARA
**>1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Zumelaga jatetxean egingo dute, azaroaren 25ean, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira Euskadiko Kutxan azaroaren 20a baino lehen.

BERGARA
**>1934an jaiotakoen bazkaria –1955eko kintoak–**
Azaroaren 11n egingo dute, Zumelagan. 14:00etan txikiteoa egingo dute eta baita argazkia atera ere. Bazkaria 14:45ean izango da. Izena emateko jo Zumelaga jatetxera. 12 euro aurreratu behar dira.

BERGARA
**>1943an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute, Azpeitxin. Izena emateko deitu 943 76 16 13 (Arantza Askasibar) edo 943 76 53 22 (Juan Antonio Fernandez) zenbakira azaroaren 22a aurretik.

BERGARA
**>1953an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 17an egingo dute afaria, Agorrosin tabernan. Gero, dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna da azaroaren 15a. Horretarako jo Agorrosin tabernara edo ONCEko kioskora. Izenematea da 15 euro.

BERGARA
**>1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Azaroaren 18an egingo dute, Zumelagan. 13:00etan meza egongo da, Santa Marina parrokian. Izenematea da Intxortan, sei euroren truke.

OÑATI
**> Markel Irizarren lagunartеak urteroko ospakizunerako izenematea ireki du**
Azaroaren 17an egingo du urteroko ospakizuna Markel Irizarren lagunarteak. Hori horrela, bazkaria egingo dute Zubillagako Zotz tabernan, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 12a baino lehen, Aker, Oñati eta Izarraitz tabernetan. Izena ematerakoan 20 euro ordaindu behar dira.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

## kale inkesta

# Zein iritzi duzu Aretxabaletako herri-lanei buruz?



**Ascension Vales**
Langilea
Aretxabaleta

Luzerako doazela uste dut. Gainera, hauts asko ateratzen dute kamioiek. Herri-lan hauek amaitu ezinak dirudite. Tranbia ipintzea ere ez dut bate-re egoki ikusten, jende gutxik erabiliko du eta.



**Eli Arenaza**
Langilea
Aretxabaleta

Trafikoarena penagarria da, ez dakizu nondik joan, egunero aldatzen dituzte norabideak herri-lanen-gatik. Denboraldi luze baten ez balute ezer apur-tuko ondo, baina beti dago kaleren bat apurtuta.



**Bea Jara**
Langilea
Aretxabaleta

Oso zikina dago. Oinez-koentzat egin duten bidea egokia ikusten dut. Horrela automobila gutxiago erabili behar da. Herri-lan gehiegi daude elkarrekin, eta honek hauts mordoa sortzen du.



**Julian Mendo**
Jubilatua
Aretxabaleta

Ondo iruditzen zaizkit herri-lanak. Oinezkoen-tzat egindako bidea egi-ten, hauts asko atera dute eta nire etxeko ataria ber-tan dago. Egunero izan dugu leihoak garbitu beharra.



**Ricardo Garro**
Aurre-erretiratua
Aretxabaleta

Herri-lanak luze doazela uste dut, eta gainera kon-ponketa pila bat batera egiten ari dira. Beharba-da hobeto da horrela egi-tea, baina gero eginda-koa berriz apurtzen badu-te alferrikakoa da.

## txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

# Espaloi gainean automobilak

Arrasateko Munar kaleko auzokide batek bidali digu kexa aste honetan. Jendea ohitu egin omen da autoak espaloi gainean aparkatzen eta bertatik ezinezkoa da oinezkoak pasatzea, ezta haur txikiak dituzten gurasoak haur-kotxeekin. Izan ere, nazkatuta dau-de auzokideak autoetan ez aparkatzeko notak ipintzeaz.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

# 10

Hamar kilometro dira Sora-luze-Bergarako ziklo-krosak izango dituenak. Hitzordua datorren zapatuan arratsal-deko 17:00etan izango da, eta parte hartu nahi dutenek egu-nean bertan ere izango dute aukera izena emateko.

## usteak uste

**Ubane Madera**

# Etxebizitzen prezioa, behera

Arrasaten bolo-bolo zebilen Gelmako etxebizitzak saldu ezinda zebiltzala eta horren ondorioz errentan hartzeko merkaturatu behar zituzte-la. Eta halaxe da, bai. Baina ez dira saldu ezinda dabil-tzan etxe berri bakarrak, beste batzuk ere antzerako egoeran daude-eta herrian. Horrekin batera, gero eta epe luzeagoan egoten dira ipinita *Saltzen da* dioten iragarkiak bigarren eskuko etxeetan.

Ibarreko eta EAEko egoera antzerakoa da. Oro har, datuek erakusten dute etxebizitzen salmenta jaitsi egin dela %10-15 bitartean.

Eta horrek poz handia ematen du; esan nahi duelako, gutxiegi bada ere, etxebizitzen prezioak hasi direla moteltzen (azkenean!).

Jakina, horrekin batera, krisian jausteko arriskua da kontuan hartu beharrekoa, Ameriketako Estatu Batue-tan gertatutakoa hemen errepika ez dadin.

Oraingoz krisi arriskuan ez gaudela diote adituek.

Eta hala izango da. Inguruan ikusten dudanez, behintzat, oraingo zubian ibar erdi baino gehiago doa kanpora. Eskiatzeko sasoia ere badator… Halakoetan pentsatzen jarraitzen badugu, krisiari beldurrik ez zaion seinale. Edo batzuk beste batzuk baino askoz ere aberatsagoak ote?

## 5 galdera...

# Ainara Gomez

Euskalteleko arduraduna
Arrasate

**1. Zer gertatzen da telefono bidez egiten diren iruzu-rrekin?**

Bai telefono bitartez zein Internetez ere, iruzurgileek zure telefono linea aprobetxatu eta 905 telefono zenbakietara deitzen dute eta ordainagiria zuri heltzen zaizu, gastatu ez duzun diru kan-titateaz. Bada beste kasu bat ere: zuri diru kantitate bat tokatu zaizula esanez deitzen dizute, eta zenbaki konkretu batera deitze-ko. Dei hauen gastuak ikaraga-rriak izaten dira. Zure aukera, erabiltzaile bezala, dei horiek mugatzea da, eta zuk aukeratzea noiz nahi dituzun erabili.

**2. Zuei, telefono saltzaile zareten neurrian eragi-ten dizue egoera honek nolabait?**

Duela urte batzuk gehiago eragiten zigun, orain gutxiago. Jendea ordainagiria etxera hel-tzen zaionean arduratu egiten da begiratzeaz, eta dendara etor-tzen da kexa aurkeztera.

**3. Hala eta guztiz ere, kexa asko izan al dituzue orain arte?**

Kexak orain lehen baino gutxiago dira, telefono mugiko-rretako iruzurrak zailagoak bai-tira orain, nahiz eta gertatzen diren; errazagoa da, gainera, tele-fono finkoetan egitea, eta kexa aurkeztea ere errazagoa da, kasu honetan.

**4. Zuk uste duzu inoiz amaituko direla iruzur kasu horiek?**

Ez dut uste. Iruzurrez bizi den jendea, ez bada modu baten bestean, baina beti jarraituko du berdin, eta are gehiago gaur egun: Internet bidezko iruzurra egite-ko bide erraza da.

**5. Zeintzuk dira eman ditzakezun aholkuak hau ez gertatzeko edo, behintzat, ahal den neurrian kasu hauek gutxitzeko?**

Kontuz ibiltzea, batez ere hori. Oso zaila da guztiz konpontzea arazo hau, zeren egin nahi due-nak topatuko baitu bidea harra-patua ez izateko. Gainera, erra-zagoa da, baita ere, ez delako behar adinako zigorrik ezartzen.



> ARRASATEKO UDALA

## Hiru langile behar ditu Udalak, behin-behinerako

Obra teknikaria, obra ikuskatzailea eta saneamendu eta mantentze-lan teknikaria behar ditu Udalak, behin-behinerako lanpostuak betetzeko.

Obra teknikariari dagokionez, aldi baterako lanpostua da, sei hilabeterako, printzipioz, edo bestela, lan karga txikitu arte. Izaera urgentea du lan eskaintza horrek. Ondorioz, ez dute zabalduko eskabideak aurkezteko eperik. Hain zuzen, lanpostua eskuratzeko interesa duenak probetara aurkeztu beharko du. Hautaketa probak egingo dituzte azaroaren 8an, 10:00etan.

**PROBAK ZEHAZTU EGIN BEHAR**

Bestalde, obra ikuskatzailearen kasuan, lanposturako izena eman behar da azaroaren 7a baino lehen eta saneamendu eta mantentze-lan teknikariaren kasuan, berriz, azaroaren 5a baino lehen. Bi kasuotan, azterketa egunak finkatu barik daude. Informazio gehiago eskura daiteke *arrasate-mondragon.org* helbidean.

> HISTORIA

## 'Harutze eta honutze Mondragoen', historia ezagutzeko ekimena

AED elkarteak Arrasateko historia ezagutzera emateko ekimen berria abiarazi du: *Harutze eta Honutze Mondragoen*. Hain zuzen, herri barruan egingo dituzten ibilbideen bitartez, Arrasateko historia ezagutaraztea da helburua.

Urtean bi irteera antolatuko dituzte. Lehenengo ibilaldirako hitzordua azaroaren 10ean egin dute. Anabel Ugalde Artearen Historian doktore denak lagunduta, goizez zein arratsaldez, Arrasateko alde zaharrean ibiliko dira. Bisita gidatu moduko bat egingo dute. Parte hartu gura izanez gero, nahikoa da Arbolapetara joatea, goizean 11:30erako eta arratsaldean, 18:00etarako. Batik bat gazteak gura dituzte gonbidatu.

**OBRAK** > ERREPIDE AZPIEGITURAK

# Zebrabidea egokitu egingo du Udalak Monterron parean

Hainbat herritarrek zebrabide berria eskatu dute Otalora Lizentziaduna kalean

Zebrabide bat gehiago larregi litzatekeelako Monterrongoa egokitu egingo du Udalak



**JENDE ASKO** Arrasate Musikal Monterronen dagoenetik ikasle askok gurutzatzen dute errepidea inguru hartan. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalean, Arbolapetaren eta San Frantzisko Xabier biribilgunaren artean eskatu dute hainbat herritarrek beste zebrabide bat egitea. Udaleko Obra batzordetik jakinarazitakoaren arabera, Pablo Uranga kalean aparkatzerakoan edo inguru hartan oinez ibiltzean, oinezko askok gurago izaten dute errepidea erditik gurutzatu, Monterronera edo San Frantzisko Xabierreko zebrabideetara joan barik.

Udalak aintzat hartu du herritarren eskaera. Baina erabaki du zebrabide berria egin beharrean, Monterrongo zebrabidea egokitu egingo dutela. Hain justu, porlanezko zebrabide altxatua ipiniko dute han. Obra Sailetik emandako azalpenen arabera, Otalora kalean beste zebrabide bat sortzea larregikoa litzateke, Tamayoren kantoian berria eginez gero, hura gertuegi legokeeta Monterrongo eta San Frantzisko Xabierko zebrabideetatik, eta autoen zirkulazioa moteldu egingo luke.

**LEHENBAILEHEN EGIN GURA**

Monterrongo zebrabidea egokitzeko lanei dagokienez, proiektua idatzi barik dago. Baina lehenbailehen egin gura dute guztia, lanak ere lehenbailehen hasteko.



ARIZMENDI

## Udalekuetako begiraleak Goñin

Goñiko aterpetxean eman zuten asteburua monitore eskolako 30 lagunek Arizmendi ikastolako arduradunekin eta Bazara proiektuko kideekin batera. Eskolaz kanpoko jardueretan haur eta gazteen artean euskararen erabilera zelan bultzatu izan zuten aztergai nagusi; horrez gainera, inguruak bisitatzeko ere aprobetxatu zuten; argazkia dago aterata Goñitik Beriainera bidean.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

> MUSIKA

## Gazteleraz abesten duen Liga Quintana rock eta elektronika talde abangoardista frantsesa

Etzi, egubakoitza, Liga Quintana eta Noviembre taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan. Liga Quintana oso talde berezia da. Grenoblekoak (Frantzia) badira ere, gazteleraz abesten dute, abeslaria Espainian luzaroan ibili delako, oso gaztetatik. Piero Quintana abeslariak 2000n sortu zuen taldea, eta hasiera baten 80ko hamarkadako Espainiako rocka hartu zuen oinarri. Horri, gainera, ukitu elektronikoa eta grunge soinua batu diozkiote. Bitxia da ahotsean Enrique Bunburyren antz handia daukala. Noviembre hirukote basauriarra izango dute lagun.



IKER BARANDIARAN

## Nagusien testigantzak txikientzat

Jaurlaritzak eta Udal Bibliotekak antolatuta, *Irakurri 2007* kanpainaren barruan, Arrasateko Iturbide egoitzako 11 egoiliarrek Erguingo ikastetxeko 6 urteko ikasleei umetako jolasen, ohituren, kantuen eta gerra kontuen gainean berba egin eta abestu egin zuten Kulturaten.

**ANTZERKIA** > 'AULLIDOS' ANTZEZLANA

# Mitologiako pertsonaien eta maitagarrien gaineko ipuin beldurgarria Amaia antzokian

Domekan helduendako txotxongiloen ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean; ospe handia hartu du ikuskizunak



**OSO IKUSGARRIA** Fantasia, erotismoa eta umore beltza batuta. TEATRO CORSARIO

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Domekan Teatro Corsario taldeak *Aullidos* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da, eta dagoeneko sarrerak salgai daude.

Teatro Corsario talde berezia da, batez ere panpina handiak erabiltzen dituelako. *Aullidos* fantasiazko ikuskizuna da, maitagarrien (hadak) ipuinetan azaltzen ez digutena ere erakusten duena.

**HELDUENDAKO TXOTXONGILOAK**

Talia nerabearen ama deabruak hartuko du; ondorioz, Inkisizioak exekutatu egingo du Taliaren ama. Bestalde, Hans Talia umezurtzarekin maiteminduko da. Eta gauza bera gertatuko zaio dukesaren maitaleari.

Amaren fantasmak Talia gizonengandik babesteko orratz batekin loaraziko du.

Horren aurrean, Hans, otsoume bihurtuta, erraldoien kontra borrokatu beharko du Talia iratzartzeko.

*Aullidos* ikuskizunean fantasia, erotismoa eta umore beltza batzen dituzte; eta ez dago elkarrizketarik.

Euskal Herriko, Espainiako eta Europako kritikariek oso ondo hartu dute ikuskizun hori eta nabarmendu dute oso ikusgarria dela. Iraganean antzeztutako *La maldicion de Poe, Vampyria, Pasion, Los locos de Valencia* eta beste batzuek ere ospea dute.

HOTEL JATETXEA SANTA ANA ★★★

Jangela
•
12 logela
•
Suite logela bat
•
Bilera gela
•
Haur parkea
•
Aparkaleku pribatua
•
Taberna
•
Etxerako aurrez prestatutako jakiak prestatzen dira











Uribarri 37 ( Udala bidean ) • Tel: 943 79 49 39 • Arrasate

**OSOKO BILKURA** > UDAL ZERGAK

# Udal zergak batez beste %3 igoko dira eta aldaketak urari dagokionean

EAE, Aralar, EAJ eta EAk onartu zituzten ordenantza fiskalak; PSE-EE alderdia abstenitu egin zen

Agorrosin: autofinantzaketa %40 inguruan dago

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Udal gobernua osatzen duten EAE eta Aralar alderdien eta oposizioan diren EAJ eta EAren babesarekin onartu zituzten astelehenean 2008. urterako ordenantza fiskalak. PSE-EE alderdia abstenitu egin zen bozketan.

Hainbat salbuespenekin, %3ko igoera aplikatu da kasu gehienetan. Hala ere, hainbat salbuespen izango dira: ekonomia jardueren gaineko zerga %3,5 igoko da, Mizpirualdeko egoitzarenak ere %3,5eko igoera izango du, kanposantukoak %5 eta estolderiarenak %5,5.

**ALDAKETAK URAREN ZERGAN**

Uraren tasan izango da berrikuntzarik aipagarriena. 40 $m^3$-ko kontsumoa ordaintzen zen orain arte eta aurrerantzean, 10 euro ordainduko dira hiru hilabetetik behin kontadorea izatearren eta hortik aurrera $m^3$ bakoitza 0,90 euro kobratuko da (50 $m^3$ra arte). Kopuru horretatik aurrera, 1,45 euro balioko du $m^3$ak. Minimoen sistematik kontsumitutako kopurura da jauzia. Ogasun zinegotzi Aitor Goitiren arabera, "kontsumoa jaistea da helburua. Horren arabera, 1.700 abonatu inguruk orain baino gutxiago ordainduko dute eta 1.200 bat abonatuk gehiago ordaindu beharko dute".

**AGORROSINGO TASAK**

Agorrosingo tasek eztabaida piztu zuten. Autofinantzaketa zenbatekoa den jakin nahi izan zuen EAJko German Muruamendiarazek, eta udal gobernuak %40 inguruan dagoela erantzun zuen. Horren ildora, tasak zertxobait igotzea komeniko litzatekeela proposatu zuen Muruamendiarazek, "zuloa gero eta handiagoa ez izateko". Goitiren arabera, mantentze-lan eta bestelako gastuak handiak dira luxuzko instalazioa egin zelako, eta horren aurrean fideltasuna igotzea –bazkide gehiago lortuz–, eta gastu korronteak jaistea dira helburuak. Tarifek, berriz, ez dute igoerarik izango, baina badira nobedadeak: igerilekua erabiltzen dutenek 15 euro ordaindu beharko dute hileko, sauna eta spa zerbitzuengatik 10 euro hilero eta biak erabili nahi dituztenek 18 euro, orain arte bezala. Bestalde, urte osoko txartela ateratzen dutenek 11 hilabete ordainduko dituzte, eta ez 12 orain arte moduan.

**MOZIO ALTERNATIBOA**

Bestalde, azkenaldian atxilotutako 19 militante abertzaleren inguruan mozioa aurkeztu zuen EAEk, baina aurretik EAJk gai horren gainean egindako mozio alternatiboa onartu zuten denek, PSE-EEk ezik. "Alderdi politikoen legea bertan behera uztea, eta batzea oinarrizko eskubidea izanda, bilerak gauzatzeagatik atxilotutakoak aske utzi behar dituztela" jasotzen da. Esplikazioan zera gaineratu zuen Agurne Barrusok: "Nahiz eta mozio alternatiboan hutsuneak egon, guretako aho zabal batez onartzea inportantea da". Hala, alkateak PSOEri leporatu zion independentismoaren kontrako politika.

Joan den urriaren 14an hainbat herritarrekin Ertzaintzak izandako jarrera gaitzetsi zuten EAEk eta Aralarrek idatzi baten bitartez.

**SAN MARTINEKOEKIN EZTABAIDA**

Erregu eta galderetan eztabaida luzea izan zen San Martin eskolako ordezkariekin. Euren egoera larria dela eta behin betiko soluzioa topatu eta informazio falta salatu zuten, besteak beste. Udalak benetan arazoa konpontzeko borondaterik duen zalantzan jarri zuten. Alde guztiak batuko dituen mahaia lanean hasteko ordua dela adierazi zuten publikotik, eta "Aranzadiren arazoa euren arazo" bihurtu dutela. Udal gobernutik, berriz, arazoa konpontzeko lanean dihardutela esan zuten.




**AGORROSIN** Tasak ez dira igoko. Autofinantzaketa %40 inguruan dago. GOIENKARIA

**> URAREN ZERGA**
Lehen 40 m3 gutxieneko kontsumoa ordaintzen zen. Kontsumitutako m3 bakoitza kobratuko da aurrerantzean, 0,90 eurotan (50 m3ra arte). Hortik gora, 1,45 euro balioko du m3ak.

**> AGORROSIN**
Tarifak ez dira igoko baina badira nobedadeak: 15 eurokoa izango da hileroko tarifa igerilekurako eta 10 eurokoa sauna eta sparako. Biak erabili nahi dituztenek 18 euro, orain arte bezala.

**> ZABORRAK**
Mankomunitatearen proposamena tasa %13,9 igotzea da.

> UDALA

## Udalaren 2008ko egutegian publizitatea egiteko deia

Bergarako Udalak 2008ko egutegia ateratzeko asmoa duela eta, bertan publizitatea jarri nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxeei-eta deia zabaltzen die. Egutegia 2007koaren tankerakoa izango da. Publizitatea jartzeko interesa dutenek Udaleko Euskara Zerbitzura (943 77 91 71) jo dezakete.

> LEHIAKETA

## Kartel lehiaketa deitu du Bergarako Emakumeen Elkarteak

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko nazioarteko egunari begira, kartel lehiaketa deitu du Bergarako Emakumeen Elkarteak. Lanak entregatzeko epea azaroaren 20ra arte izango da zabalik. Irabazleak 200 euro jasoko ditu. Sari banaketa ekitaldia Pol-Pol tabernan egingo dute, azaroaren 25ean.

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara



**BEHIBI'S** Irudian Patricia, haurrei ipuinak kontatzen .
BEHIBI´S ANTZERKI TALDEA

**ANTZERKIA** > HAURRENTZAKO IPUIN KONTAKETA

# 'Marilo beti lo' antzezlana domekan Agorrosinen

Domekan, Agorrosingo ikus-entzunezkoen aretoan izango da antzerki saioa, 17:00etan

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bergarako Udalak antolatuta eta Kutxaren laguntzarekin, domekan, azaroaren 4an, *Marilo beti lo* haurrentzako antzerki ikuskizuna izango da Agorrosingo ikus-entzunezko aretoan. Hain zuzen ere, aurtengo udazken kulturalaren barruan Bergarako Udalak antolatu dituen ekintzen artean sartzen da antzerkia. Saioa 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Gehienez, 50 haurrentzako emanaldia izango da, eta guztira 45 minutuko iraupena duen ipuin kontaketa izango da. Sarrera dohainik izango da.

Bergarako Kultura teknikari Maider Osarekin egon gara, eta antzerki talde hori zergatik aukeratu duen galdetu diogu: "Aurretik ere bageneukan talde horren berri, eta ikuskizun polit eta duina emango duela uste dugu, eta horregatik erabaki dugu talde hori aukeratzea. Gainera, Kutxaren laguntzarekin denez, zerrenda luze baten barruan aukera genezakeen, eta guztien artean aproposena iruditu zitzaigun".

**BEHIBI'S TALDEA**

Ikuskizuna emango duen antzerki taldearen izena Behibi's da, eta 1992. urtean sortu zen, Donostian. Bertan, Patricia da taldeko partaide bakarra, nahiz eta beti eramaten dituen berarekin teknikari bat eta baita zuzendari bat ere. Agertokia txukundu eta girotzeaz Patricia bera arduratzen da. Domekan Bergaran egingo duen ikuskizunaren gainean hitz egin dugu Patriciarekin: "*Marilo beti lo* ikuskizuna bi ipuinez osatutako ipuin kontaketa da: *Baba magikoak* eta *Osaba otso,* hain zuzen ere. Haurrei asko gustatzen zaizkie ipuinak, eta beraien atentzioa gustuko duten ipuinetan ipintzea oso polita da".

Gaztetxoek, horrenbestez, aukera ezin hobea daukate domekan antzerki saio polit batez gozatu eta aldi berean ondo pasatzeko.

> KOMIKOAK

### Azaroan zehar eta asteburuero 'Komikoen gauak' izango dira Irish Pub Galway's tabernan

Urriko azken asteburuan hasi ziren arren, azaroan zehar ere egongo da *Komikoen gauak* Bergarako Irish Pub Galway's tabernan: azaroaren 9an, gaueko hamaiketan, Kike Biguri egongo da; azaroaren 17an, ordu berean, Alex Rabanal izango da bertara joaten direnei barrea sorrarazteko prest; eta azaroaren 23an, hori ere gaueko hamaiketan, Toñin-en txanda izango da.

> ERAKUSKETA

### 'Tratu txarren aztarnak' argazki erakusketa izango da azaroaren 7ra bitartean kultura etxean

Tratu txarrak jasaten dituzten umeek egindako argazki erakusketa egongo da kultura etxean ikusgai datorren azaroaren 7ra bitartean. Erakusketaren izenburua *Tratu txarren aztarnak* da. Antolatzailea AVAIM da, tratu txarrak jasan dituzten haurrei laguntzeko euskal elkartea. Argazki bakoitzaren azpian, psikologo batek egindako azalpen txiki bat agertzen da, argazkiaren zergatiaren azalpena batekin.



KILOMETROAK 07

## Kilometroen gaineko erakusketa

Kilometroak 07 gai hartuta argazki erakusketa egongo da Bergarako Aroztegi aretoan azaroaren 2tik 9ra bitartean. Erakusketaren izenburua da: *Kilometroak 07: herriarekin, herriarentzat.* Aranzadi ikastolak antolatuta, Kilometroak jaian ateratako argazkiak ez ezik, urte osoan zehar egin diren ekitaldien argazkiak ere egongo dira.

Clínica Oftalmológica RECALDE Oftalmologi Klinika
www.clinicarecalde.com
Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 20 18 44

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
**Puntuak berreskuratzeko** aukera
Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!
943 76 16 63 BERGARA
LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Gabonetako argiak ipintzeko lanak esleitu ditu Udalak, 17.950 eurotan

Hain zuzen ere, Maykolux SL enpresak ipiniko ditu Gabonetako argiak Oñatin

Administrari eta administrari laguntzaile lan poltsa sortzeko baldintzak onartu dituzte



OSOKO BILKURA Administrari zein administrari laguntzaile lan poltsa sortzea ere onartu zuen udalbatzak. I.A.

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Joan den eguneko osoko bilkuran erabakitakoaren arabera, Maykolux enpresak ipiniko ditu Gabonetako argiak herrian. Aurreko urteetan, 25.000 euro inguru zuzendu izan dira gai horretara, eta aurten, Gabonetako argiteriari dagokionez aurreztea erabaki du Udalak; hala, 17.950 euro kostatuko da aurten Gabonetan herriko kaleak argiz apaintzea.

**ADMINISTRARI LAN POLTSA**

Administrari zein administrari laguntzaile lan poltsa sortzeko oinarrien proposamena ere onartu zuten joan den asteko osoko bilkuran. Honakoak dira deialdiaren oinarriak: helburua da udal zerbitzuetan gerta daitezkeen gaixotasun bajak edo administrari laguntzaileak eta administrariak ordezkatzeko lan poltsa osatzea.

Administrari laguntzaile lan poltsarako bete beharreko baldintzak hauek dira: adinez nagusi izatea, eskola graduatua izatea, LH-I edo pareko ziurtagiriaren jabe izatea eta eginkizun publikoetan jarduteko ezgaitua ez izatea. Horrez gain, euskarazko 3. hizkuntza eskakizunari dagokion maila ere eskatzen da.

Administrari lanpostuak betetzeko lan poltsak, ordea, bestelako eskakizunak ere baditu: aurkezten denak batxilergoa, LH-II edo baliokidea den titulua ere izan beharko du. Bada, eskaera curriculumarekin eta aurkeztutako tituluen ziurtagiriekin egin beharko da.

Hain zuzen, eskaera aurkezteko epea azaroaren 17an amaituko da. Esperientzia, informatikako ezagutzak eta euskara maila ere baloratuko dira.

**ETXE TASATUAK**

Bestalde, Otadui zuhaiztian etxebizitza tasatuko lau bloke eta 32 etxebizitza eraikiko dituzte. Guztiek ere garajea izango dute. Sanmartinalde SL eraikuntza enpresak egingo ditu lanak. Etxebizitza berriok Otadui zuhaiztiko 64, 66, 68 eta 70. zenbakiak izango dira.

Bestalde, Ugarkaldeko etxebizitza tasatuen gaineko informazioa eskuratzeko Lizaur kaleko 5. zenbakiko bulegora joan behar da. Zubian itxita egongo da, bihartik domekara bitartean.

**HEZKUNTZA** > ELKAR HEZIKO ELKARTRUKE PROGRAMA

# Hemeretzi ikasle eta bi irakasle etorri dira Holandatik

Domekan, urriaren 28an, iritsi ziren Herbehereetatik 19 ikasle eta bi irakasleak; azaroaren 3ra bitartean egongo dira gurean



ELKARTRUKEA Holandako ikasleak Elkar Heziko ikasleekin batera. MAIDER ARREGI

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Elkartruke proiektuaren oinarria Europako herrialde txikietako hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza da. Elkartrukea Holandarekin egiteko arrazoia da proiektuaren helburuekin lotuta dagoen lurraldea dela. Hau da, bai Holandan eta baita Euskal Herrian ere hizkuntza gutxituak daudela eta indarrean dagoen beste hizkuntza bat dutela: gaztelera eta ingelesa. Gainera, hemengo ikasleei ingelesa ikastea kostatzen zaien moduan, Holandako ikasleei gaztelerarekin berdina gertatzen zaie. Proiektua, hain zuzen ere, horixe aztertzen saiatuko da. Aipatu behar da proiektuak bi herrialdeen arteko desberdintasun eta berdintasun kultural nahiz soziologikoak aztertuko dituela. Horrela, ekintza ugari egingo dituzte gaztetxo guztiek.

**ELKARTRUKE PROGRAMA**

Holandako Mill-Hill College ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleek, euskarazko eskolak jasoko dituzte egunero bizitzen ari diren familia eta inguruaren bitartez. Gaztelerazko eskolak ere hartuko dituzte, baita soinketa, musika edota historiakoak ere. 15-16 urte bitarteko gazteak Arantzazu eta Aizkorriko parke naturala bisitatuko dute. Donostiara ere joango dira egun pasa.

Proiektua eta ikerketa aurrera ateratzeko egunero bi orduz elkartuko dira Elkar Heziko ikasleak eta Holandako ikasleak. Gainera, ikasle eta familia guztiek afaria egingo dute Oñatiko Larraingain elkartean hemengo gastronomia dastatu eta ohiturak ezagutzeko.

Martxoaren 9tik 14ra bitartean Holandako Goirle herrira joango dira Elkar Heziko gaztetxoak esperientziak elkartrukatzeko. Gainera, ekainetik aurrera kontaktuan egongo dira http://nles.freehostia.com webgunearen bitartez.

**UDALA**

# Ziburuetan segurtasun saskiak ipiniko dituzte

Haur parkeetan txikienentzako segurtasun saskiak ipiniko ditu Udalak

**M.A** > OÑATI

Gurasoen eskaera bati kasu eginez, herriko haur parke guztietan hiru urtetik beherakoentzako segurtasun saskiak ipiniko ditu Udalak. Parke bakoitzean ziburu bat hornituko dute segurtasun saskiekin.

Errementari plazako haur parkean dauden bi ziburuetako bati babes saskiak ipintzeko eskaera egin zuen guraso batek. Gaia aztertu ondoren, eta Zerbitzu zein Hazienda batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan izanda, tokiko gobernu batzarrak erabaki du herrian dauden gainontzeko parkeetako ziburu batean, behintzat, hiru urtetik beherako haurrentzako segurtasun saskiak ipintzea.


Kantari
Debagoienean
Karaoke Ikuskizuna
Arrasateko Amaia Antzokian
Azaroaren 10ean eta 11n
Azaroaren 10ean:
• 1. saioa: 15:30ean
• 2. saioa: 16:40ean
• 3. saioa: 17:40ean
• 4. saioa: 18:40ean
Azaroaren 11n:
• 1. saioa: 16:00etan
• 2. saioa: 17:15ean
• 3. saioa: 18:30ean
Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!
BABESLEA
gaztetxoen
elkartea
club juvenil
ANTOLATZAILEA
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LAGUNTZAILEAK
2tan
KARAOKEA
ingou
ARANZADI
ikastola
ELKAR HEZI
Arizmendi
ikastola
goieskola
TXANTXIKU
IKASTOLA

**UDALA** > EZOHIKO OSOKO BILKURA

# Giza eskubideak aldarrikatzen dituen mozioa onartu dute

Aretxabaletarren elkarbizitza eta giza eskubide guztiak pertsona guzientzat defendatu eta aldarrikatzeko mozioa aho batez onartu zuten


**UDALBATZA** Mozioa aurkeztu zuten asteleheneko osoko bilkuran eta aho batez onartu zuen udalbatzak. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Herritarren elkarbizitza defendatu eta giza eskubide guztiak pertsona guztientzat direla aldarrikatu gura izan zuten astelehenean egindako osoko bilkuran.

**PINTADAK GAITZETSI**

Durangon Guardia Zibilaren kuartelaren eta Bilbon Gabriel Gines bizkartzainaren aurka egindako atentatuak gaitzetsi zituzten; baita Aretxabaletako PSE-EEko zinegotzien etxearen eta lan bulegoaren aurka pinturarekin egindako erasoak ere. Modu berean salatu zituzten Batasuneko zuzendaritzako kideak atxilotu izana, "ez duelako laguntzen giro politikoa hobetzen".

Eta sei puntu onartu zituzten: gogor gaitzetsi PSE-EEko zinegotzien aurka egindako pintadak, eta udalbatzaren elkartasuna adierazi; gainera, exijitu irainezko eraso eta presio bideak baztertzeko. Halakorik gerta ez dadin lan egiteko konpromisoa hartu zuten, eta aldarrikatu Euskal Herriko gatazka gainditzeko bide politiko eta zibilak erabili beharra dagoela eta giza eskubide guztiak errespetatu. Eta bat egin zuten Eusko Legebiltzarrak urriaren 26an onartutako emendakinarekin, bizkartzainak eta ETAk mehatxatutako hiritar guztiak babesten dituena.

PSE-EEko zinegotzi Ainhoa Sagarribaik pozik hartu zuen onartutako azken puntua, eta zoriondu egin zuen udalbatza. Hala, aho batez onartu zuten mozioa.

**HERIOTZA**

# Herriko emakume nagusiena hil da

Elesgarai baserrian bizi zen Margarita Lasagabaster eta 96 urte zituen

**M.A.**> ARETXABALETA

Domekan, hilak 28, hil zen Margarita Lasagabaster, Aretxabaletako emakume nagusiena. 96 urte zituen, eta Elesgarai baserrian bizi zen. Hil honen hasieran, 6an hain zuzen, omenalditxoa eta oparia jaso zituen alkatearen eskutik, Udalak erretiratuei eskainitako egunean. Kafe sasoirako eroan zuten senideek eta dantzan eta guzti egin zuen Lasagabasterrek. Datorren urtean gainerako erretiratuekin bazkaltzera joango zela agindu zien jaialdiaren antolatzaileei. Emakume apal eta alaia, osasun ezin hobea izan zuen hil artean.

Herriko nagusiena, ostera, Joaquin Barbero da; 101 urte beteko ditu datorren abenduaren 18an.

**BIZIKLETAK** > APARKATZEKO TOKIAK

# Bizikletak uzteko aparkaleku gehiago

Udalak hil honetan onartu du 3.000 euroko gastua bizikletak aparkatzeko azpiegitura erosteko

**M.A.** > ARETXABALETA

Urriaren 18an egindako gobernu batzarrean onartu zuten bizikletak aparkatzeko azpiegitura gehiago erostea. 3.000 euro bideratuko dituzte horretarako, eta herriko hiru tokitan jartzea aurreikusi dute: Iturrigorri frontoian, Ibarra futbol zelaian eta oraindik bukatu barik dagoen kulturarako eraikinaren atzeko partean.

Aurreko agintaldian hasi ziren aparkalekuok jartzen herrian –Durana kalean, liburutegi aurrean eta gaztelekuan–, eta orduan hasitako bideari jarraituko diote.


**APARKALEKUA** Durana kalean dagoen bizikletendako lekua. M.A.

> PARROKIA

### Ohiko ordutegia dute Domu Santu eguneko mezek

Bihar, azaroak 1, Domu Santu eguna ospatuko du Elizak. Eta egunean esango dituzten mezek domeketako ordutegia izango dute: 09:00etan Agustindarren monasterioan eta 11:30ean, parrokian. Eta gaur, urriak 31, jai bezpera denez, 19:30ean izango da meza, parrokian.

Etzi, azaroak 2, ostera, hildakoen aldeko eguna ospatuko dute kristauek, eta mezek aste egunetako ordutegia izango dute: 08:00etan, Agustindar mojen monasterioan, eta 19:00etan, Aretxabaletako parrokian.





**KEXAK** > MURUBIDE PLAZAKO BIZILAGUNAK

# Murubide plazako bizilagunen eskaerak onartu ditu Udalak

Lorontziak kendu eta eserlekuak jartzea, edukiontzia tokiz aldatzea eta antzekoak dira gehienak

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Murubide plazan bizi diren bizilagunek hainbat eskaera egin dizkiote Udalari, plaza ingurua txukuntzeko. Urriaren 18ko gobernu batzarrean aztertu zituzten eskaerok eta gehienak onartzea erabaki zuen udal gobernuak.

**ZORTZI ESKAERA**

Plaza inguruan dituzten lorontzi handien ordez eserlekuak jartzea eskatu dute, hondatuta daudelako asko, eta Udalak onartu egin du eskaera. Bestalde, uste dute barruko aparkalekua hondoratzen dabilela, eta aparkalekuaren gainazala ez dagoela batere ondo. Eta Udalak erantzun die zenbait lan egin beharko dituztela inguruan eskatutakoa aztertzeko. Bizilagunek diote, gainera, ibilgailuak ez aparkatzeko dagoen marra larua ez dela errespetatzen, eta ondorioz, isunak jartzeko eskatuko diete udaltzainei. Plazan dagoen edukiontzia lekuz aldatzeko eskaera aztertzekotan geratu da Udala, proposatutako kokapen berrian ere arazoak sor ditzakeelako.

Bestalde, plaza barruan eta erreka ondoan dauden zuhaixkak kentzeko eskatu dute bizilagunek, zaborra pilatzen delako bertan eta umeak jolasean ibiltzen direlako. Udalak onartu egin du batzuk kentzea, eta beste batzuen tamaina txikitzea. Pilotalekuan dagoen sarea konpontzea ere agindu die Udalak. Eta erreka ondoan dauden hondatutako hustubideak konponduko dituela ere jakinarazi die.

Azken eskaera Murubide 6an dagoen transformagailuaren gainekoa da. Iberdrolari lekuz alda dezan eskaera egiteko esan diote Udalari. Lekualdaketarako zein pauso eman behar diren azaldu die Udalak, eta gaineratu die, horrek dakartzan gastuak bizilagunen kontura izango direla.



**MURUBIDE PLAZA** Erreka alboan daude Murubide plazako etxebizitzak. M.A.

> AISIALDIA

### Perkusio ikastaroa, Hondarribiara irteera eta PlayStation txapelketa azaroan gaztelekuan

Egitarau dotorea dute azaroan gaztelekuan. Zapatuan perkusio ikastaroa egingo dute, eta aditu bat etorriko da erakustera. Domekan, ostera, filma ikusiko dute gaztelekuan. Azaroaren 10ean, PlayStation txapelketa jokatuko dute eta 11n malabarrak egingo dituzte.

Hurrengo aste bukaerarako, azaroak 17, irteera antolatu dute Hondarribiara. Skate parkean ibiltzera joango dira, eta izena aurrez eman behar dute interesatuek, gaztelekuan bertan. Azaroaren 18an, ostera, karaoke saio dibertigarria izango dute. Eta azken aste bukaeran, 24an eta 25ean, buztina landuko dute.

> INTERNET

### Arratsaldeetan zabalduko dute KZgunea azaroan, eta martitzenetik eguenera goizetan ere bai

Astelehenean, azaroak 5, hasi eta hilabetea bukatu bitartean ikastaro ugari egingo dituzte KZgunean, 16:00etatik 20:00etara; eta martitzenetik eguenera 09:00etatik 13:00etara ere bai. Batzuk ikastaro luzeak dira; Interneten gainekoa, esaterako. Eta beste batzuk egun bakarrekoak: *Zure seme-alaba babestu*, *Justizia ezagutu*…

Bestalde, IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte; hona egunak: azaroaren 6an eta 16an, 16:00etan; eta 21ean eta 29an, 18:00etan. Hitzordua aurrez egin behar dute interesatuek.

> BERTSOLARITZA

### Gaztetxoendako bertso eskola jarriko dute abian azaroaren 12an, eta izenematea zabalik dago

Bertso eskola jarriko du abian gaztetxoendako Loramendi Euskara Elkarteak. Bertsoak gustuko dituzten 9 eta 12 urte arteko neska-mutikoei egin diete dei, eta azaroaren 7rako eman behar dute izena interesatuek, Loramendi EEn: 943 77 09 70 telefono zenbakira deituta edo *loramendi@topagunea.com* helbidera idatzita. Eskolak azaroko bigarren astean hasiko dituzte, baina aurretik ordutegiaren berri emango diete izena emandakoei.





Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA
ETENGABEKO ZERBITZUA
LORE KOROAK
ESKELAK
TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

LEHIAKETA

## Orri puntuak aukeratzeko lehiaketa

I.B. > ESKORIATZA
Udaleko Kultura eta Euskara sailek orri puntuak aukeratzeko lehiaketa antolatu dute bigarren aldiz.

Orri puntuen neurriak 21x5,50 zentimetrokoa izan behar du. Hala, aurkeztutako lanek neurri hori eduki beharko dute.

**300 EUROKO SARIA**
Teknika eta gaia libreak izango dira, eta irabazleari 300 euroko saria emango diote. Lanak bibliotekara eraman beharko dira azaroaren 30a baino lehen.

Orri puntuak egilearen izen barik aurkeztu beharko dira, atzeko aldean lelo bat dutela. Ohi bezala, aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute antolatzaileek horri egoki baderitzote. Epaimahaiaren erabakia aldaezina da. Horren ostean jaso ahalko lirateke saritu gabeko lanak. Hilabeteko epea daukate egileek erakusketaren ostean lanak jasotzeko, bestela, Udalak erabakiko du lanekin zer egin.

AISIALDIA

## Azaroan ere gazteendako ekintza ugari

I.B. > ESKORIATZA
Txatxilipurdi aisialdi elkarteak eta Udaleko Gazteria Sailak hainbat ekintza antolatu dituzte azarorako, gaztelekuaren erabiltzaileendako.

Zapatuan, hilaren 3an, perkusio ikastaroa egingo dute. Horretarako, Aretxabaletako gaztelekura joango dira. Hilaren 10ean eta 11n, bietan, gaztelekua margotzeari ekingo diote gazteek. Hilaren 17an, berriz, Hondarribiara irteera egingo dute. Han, besteak beste, skate parkean ibiliko dira. Hilaren 24an, bukatzeko, mendi irteera egingo dute, zailtasun bakoa.

**TORTOLIS LUDOTEKA**
Tortolis ludotekak ere gertu dauka azaroko eskaintza. Etzi, egubakoitza, *play back* eguna izango da eta egubakoitzera egongo dira ekintza bereziak egiteko. Hilaren 10ean mendi irteera antolatu dute haur guztientzat.




**URAREN KONTSUMOA** Uraren gehiegizko kontsumoak asko arduratzen du Udala; eta hori saihesteko neurriak hartuko ditu.
IKER BARANDIARAN

**OSOKO BILKURA** > BIHAR EGINGO DUTE OHIKO OSOKO BILKURA

# Ordenantza fiskalak onartuko dituzte gaurko osoko bilkuran

Ordenantza fiskalez gain, kirol zerbitzuak kontratatzeko espedientea irekiko dute, eta Mankomunitaterako ordezkariak izendatuko dituzte

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Gaur, eguaztena, udaleko ohiko osoko bilkura egingo dute, 18:30ean. Gai ugari izango dituzte berbagai eta eztabaidagai.

Gai garrantzitsuenetako bat 2008rako ordenantza fiskalak onartzea izango da. Dagoeneko ordenantzen gaineko puntu gehienak adostuta dituzte batzordeetan, baina badira oraindik adostu beharreko batzuk ere. Horietan izango da zalantza handiena.

**ORDENANTZA FISKALAK**
Ordenantza fiskalen barruan honako berrikuntzak onartu gura dituzte: ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzerakoan familiaren unitate kopurua eta soldatak kontuan hartzea; trakzio mekanikodun ibilgailuen zergak aldatzea; hiri izaera duten lurren balio igoeraren gaineko zerga; ostalaritza eta saltoki txikiei laguntzeko, azalera handiagoa behar duten negozioei zergak handitzea; eta hiruhilabeteko uraren gutxieneko kontsumoa 20 metro kubikotan ezarri.

EAE taldearen proposamenak dira gehienak, eta aldaketa horien helburua da gutxien daukatenek gutxiago ordaintzea eta gehien dutenek gehiago ordaintzea. Hala jakinarazi zigun Pedro Lasagabaster alkateak.

**HEGOALDEKO KPI OINARRI**
Ordenantza fiskalei %2,7ko igoera ezarriko diete. Horretarako, Hegoaldeko KPI ertaina hartu dute oinarri. Bestalde, ordenantza fiskalen gainean hainbat desadostasun izan zituzten batzordean, eta horiek osoko bilkuran eztabaidatu beharko dituzte: herritarrek hirigintzaren gaineko kontsultak doan izatea; familia unitatea kontuan hartzea; eta Mankomunitateak zaborren gainean ezarri gura duen igoera, besteak beste.

**KIROL JARDUERAK**
Bestalde, kirol zerbitzuak kontratatzeko espedientea irekitzea eta kirol jarduetarako prezio proposamena izango dituzte berbagai. Hala, enpresen eskaintzak aurkezteko epea zabalduko dute. Eta kirol zerbitzuen prezioa inguruko herrietan dagoenera egokitu gura dute.

**KREDITU BATZUK ALDATU**
Tarteka diru premien arabera egiten duten moduan, kreditu batzuk aldatzeko proposamena egingo dute. Hain zuzen ere, kiroldegirako, markesina berria jartzeko eta Kulunka ludotekako mantentze-lanetarako dirua bideratu gura dute.

**MANKOMUNITATEAN ORDEZKARI**
Honako hauek izango dira ordezkariak Mankomunitatean: Ogasuna eta Pertsonala (Pedro Lasagabaster); Lurralde Antolamendua (Dorleta Lezeta); Hiltegia (Leire Okarantza); Garapen Ekonomia (Ander Agiriano); eta hainbat zerbitzu (Aitor Urrutia).

> ELKARTASUNA
### Ciudad Juarezko amen hitzaldia azaroaren 8an

Elkarhezitzen taldeak eta Anelkarrek antolatuta, honako berbaldia egongo da azaroaren 8an, eguena, Antzuolan: *Emakumeen aurkako indarkeria, Ciudad Juarezko feminizidioa*. Olaran etxean izango da hori, 20:00etan. Berba egingo dute Elia Escobedok eta Julia Esther Canok, hildako bi gazteren amek. Debagoieneko herri guztietan egingo dituzte berbaldiak azaroan zehar; Antzuolakoa izango da lehenengoa.

> FUTBOLA
### Gol zaparradarekin irabazi zuten antzuolarrek

Martutenen jokatu zuten aurreko asteko domeka eguerdian antzuolarrek, Amara Berri taldearen aurka. 1-5 nagusitu ziren antzuolarrak. Hamarna jokalarirekin bukatu zuten partidua bi taldeek; Antzuolako taldean, Josu Zubikarai bota zuen epaileak.

Bihar, eguena, etxean jokatuko dute, 16:00etan, Donostiako Roteta taldearen aurka.

> MANKOMUNITATEA
### Batzordeetarako ordezkariak izendatu dituzte

Aurreko asteko ezohiko udalbatzarrean izendatu zituzten Debagoieneko Mankomunitateko batzordeetarako ordezkariak. Hauek izango dira: Pedro Iturbe (Hiltegia); Jose Mari Iturbe (Ingurumena); Andoni Azkargorta (Lurralde Antolamendua); Mari Paz Ugalde (Garapen Agentzia eta Turismoa) eta Patxi Olabarria (Jarduera koordinatuak). Gogoratu behar da, gainera, Pedro Iturbe alkatea dela hiltegiko presidentea.

> ANTZERKIA
### Azaroaren 9an 'Izerdi patsetan' antzezlana Olaranen

Datorren asteko egubakoitzean, azaroak 9, *Izerdi patsetan* antzezlana eskainiko dute Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak. Emanaldia izango da Olaran etxeko aretoan, 22:00etan.

*Goenkale* saioan egin ziren ezagun bi aktore horiek eta umorea nagusi den antzezlana eskainiko dute. Iker Galartzak *Vaya Semanita*-n dihardu gaur egun.



**BASERRIAK** Antzuolan 125 baserri daude. A.I.

**NEKAZARITZA** > UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA

# Baserrien egoera ezagutu nahi du Udalak

## Galdetegi bat banatu dute, ur horniduraren eta saneamenduaren egoeraren berri jakiteko

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Ur hornidurari eta ur zikinen bilketari dagokionez baserriak zein egoeratan dauden jakin nahi du Udalak. Horretarako, galdetegi bat banatu diete herriko baserritar guztiei. Erantzunak jaso eta gero, Udaleko Nekazaritza batzordeak ebaluazio orokorra egingo du, auzorik auzo.

Aurreko agintaldian egin zen proposamen eta aurre-proiektu bat baserrietara Urkuluko ura eramateko eta ur zikinak biltzeko eta tratatzeko. 3.336.616 eurokoa zen aurre-proiektuaren aurrekontua. Jose Mari Iturbe (Zutik-EB-Aralar) da Nekazaritza batzordeko arduraduna. Hauxe azaldu du Iturbek: "Baserri guztien egoera eta baserritarren interesa ezagutu ondoren erabakiko dugu aurre-proiektu horrekin zer egin; gainera, dauden aukera guztiak aztertuko ditugu sakon". Aurre-proiektuaren bideragarritasuna eta finantzaketa bideak ere aztertuko ditu Udalak.

Ur hornidurari dagokionez, bi aukera darabil esku artean Nekazaritza batzordeak: Urkuluko ura erabiltzea, kaleko etxeetan bezala, edo herriko iturburuetako ura erabiltzea.



A.I.

## Autobus geltokia guztiz bukatuta egongo da laster

Ia bi urte pasatu dira Sagastiko autobus geltokian markesina jarri zutenetik. Bukatu gabe laga zuten eta oraintxe dihardute azkeneko ukituak ematen. Egunotan jarri diote atzeko aldeko kristala eta laster jarriko diote eserlekua ere.

Bestalde, aurreko astean jarri zuten Udalak eta Lurraldebusek panel informatibo bat. Panel hori digitala da eta autobus erabiltzaileendako informazioa jarriko dute hantxe. Hori ere laster egongo da martxan.

**bere ustez**



Amaia Olabarria

## G puntuaren bila

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa hitzetik hortzera dabilen honetan, Antzuola eta bertsolaritza nola uztartzen diren pentsatzen jarri naiz.

Euskaraz ikasteko aukerarik izan ez zutenen artean izan ditugu zenbait bertsolari, baina ikastolakume eta euskal eskolakumeon artean ez da bertsolaririk sortu gure herrian.

Unibertsitate garaian Gasteizko bertso eskolan aritu nintzen ni ere, bertsolaritzaren boom garai haietan, baina parranda girotik edo paperetik plazara saltorik egin gabe. Antzuolan bertan duela urteak egiten zen bertsopaper lehiaketa ere ez dakit oraindik antolatzen ote den.

> **"Euskaldunok aspaldi topatu genuen G(azteleraren) puntua, lan pixka bat badugu G(eure) puntuaren bila"**

Arrazoia zein ote, umetan bertsotan ikasi ez izana, herrian tradizio handirik eza edo antzuolarrok plazandre/plazagizon senik eza?

G puntuaren bila hasi zaizkigu Gipuzkoako bertsolariak, marketing erakargarria duda barik. Iaz Galizian hizkuntza sustatzeko ere antzeko kanpaina abiatu zuten *Descubre o teu Punto Gue. Pásate ao galego* lemarekin.

Euskaldunok aspaldi topatu genuen G(azteleraren) puntua, lan pixka bat badugu oraindik G(eure) puntuaren bila!

((112))
SOS DEIAK

bere ustez



Ana Gillegi

## Baketik.org Topagunea

Asko joaten ziren lehen Arantzazura, gogoeta jardunaldiak egitera. Gaur egun berriz aukera aparta dugu gogoeta horiek egiteko baina etika abiapuntu bezala hartuta. Joan zaitezte. Bakearen gunea da. Munduan hainbat bake gune ditugu, guk hementxe alboan dugu.

Arantzazun, Gandiaga topagunean. Toki paregabean. Kokagune eta ikastaro ezin hobea bizitzako, gure eguneroko gora beherak ulertzeko, ikasteko. Baketik-en etika oinarri bezala hartuta konfliktoak konpontzeko bidea erakusten dute.

**"Beste modu batera ikusiko duzu handik irteten zarenean, nahikoa da hori irtenbidea aurkitzeko. Zoaz eta bizi ezazu"**

Aukeratu ezazu zure eguneroko konflikto hori: bikotearekin, seme-alabekin, lankideekin, auzokoekin… Beste modu batera ikusiko duzu handik irteten zarenean, nahikoa da hori irtenbidea aurkitzeko. Azaltzeko modu sinple honen azpian sakoneko gaiak daude. Zoaz eta bizi ezazu.

Itsu-itsuan joan nintzen. Egoera pertsonal batek bultzatuta, beste modurik ez dago, nire konfliktoak nola soluzionatu nitzakeen ikastera hurbildu nintzen. 18 lagun elkartu ginen; adin eta ikuspuntu desberdinekin, pentsaera, helburu eta egoera desberdinekin. Dagoeneko bi mila pertsona baino gehiago hurbildu gara.

((112))
SOS DEIAK



**GURASO ELKARTEA** Hainbat ekintza antolatu dituzte, tartean Santa Ageda eguneko koplak. ARTXIBOA

**HEZKUNTZA** > AURTENGOAN 3., 4., 5. ETA 6. MAILETAKO UMEEKIN EGINGO DUTE ESPERIENTZIA

# Gabonetako jolasgunea umeek aukeratuko dute

Aurrekontu bat emango zaie, baita eraman daitezkeen jolasen prezioak ere, eta umeek aukeratuko dituzte lehenengo aldiz Gabonetako jolasguneko osagaiak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Hezkuntza batzordeak urrian egindako proposamena da honakoa: Gabonetan jolasgunea edo PINa umeek aukeratzea. Hala, jolasgunea osatuko duten jolasak erabakitzea umeen esku utziko dute, baita haren iraupena ere. Noski, aurrekontu bat emango zaie umeei, baita eraman daitezkeen jolasen prezioak ere; eta jarritako aurrekontuari egokitutako aukeraketa egin beharko dute. Lehenengo urtea izanik, esperientzia 3., 4., 5. eta 6. mailetako umeekin egingo dute. Txikiendako jolasgunea Kirol batzordeak aukeratuko du aurten. Helburuak, besteak beste, umeek gauzak baloratzen ikastea eta matematikak lantzea dira.

**GURASO ELKARTEARI 2.000 EURO**

Udalak, bestalde, 2.000 euroko dirulaguntza emango dio Maala guraso elkarteari. Iazko ikasturtean elkarteak bere gain hartu zituen eskola barruko igeriketa ikastaroak. Gainera, psikomotrizitate saioak, Gabonetako zein Inauteri eguneko txokolatejanak, jaietako *playback* saioa, buztingintza zein bitxigintza tailerrak eta familiarendako zinema antolatu zituen, besteak beste. Abestera ere irten ziren Gabonetan eta San Agedan.

**EUSKO IKASKUNTZA**

## Jakiundeko kide egin dute Jon Markaide

Eusko Ikaskuntzaren zientzia, arte eta letren akademiako kidea da elgetarra

**L.Z.** > ELGETA

Eguenean, hilaren 25ean eratu zuten Donostian Eusko Ikaskuntzaren zientzia, arte eta letren akademia, Jakiunde akademia. Alor horietan egindako lanagatik nabarmendutako 26 adituk osatzen dute akademia, tartean Jon Markaide astronomo elgetarrak.

Jakiunde akademiako kideak urtean hiru aldiz elkartuko dira. Euskal letrek, zientziek eta arteek hartu beharko luketen bidea izango dute hausnarketa gai.

> ERAKUSKETA

### Emilio Mandalunizek erakusketa jarriko du azaroan Espaloian

Espaloiak hilero eskaintzen duen erakusketa herritar batek jarriko du honakoan. Emilio Mandalunizek margolanak zintzilikatuko ditu datorren astean eta hil osoan egongo dira ikusgai. Margotzen ikastera joaten da azken urteotan Mandaluniz, eta egindako lanak erakutsiko ditu.

**ZINEMA** > GAUR, 'UNA NOCHE EN LA OPERA' ESPALOIAN

## 'Bosque de sombras' filma azaroaren 6an Eibarren

Elgetako Arantzeta auzoan grabatu zituzten filmaren pasarte batzuk

**L.Z.** > ELGETA

Zinema eskaintza ugaritu egingo da asteburu honetatik aurrera Elgetan. Domekan, azaroaren 4an, emango dio aurten hasiera Maala guraso elkarteak Familiarendako Zinema ekimenari. *Pipi Galtzaluze* filma aukeratu dute lehenengo egunerako eta saioa 17:30ean hasiko da Espaloia Kafe Antzokian. Neska ilegorriaren eta haren lagunen abenturak euskaraz ikusteko aukera izango dute, beraz, domekan herriko umeek.

**'BOSQUE DE SOMBRAS' EIBARREN**

Martitzenean, hilaren 6an, *Bosque de sombras* filma emango dute Eibarko Coliseo aretoan, 21:30ean. Koldo Serra zuzendariak Elgetako Arantzeta auzoan grabatu zituen bere lehenengo film luzearen pasarte batzuk. Jose Ramon Arantzabal auzotarrak aktore lanak egin zituen bertan. Herriko zenbait txoko pantaila handian ikusteko aukera polita, hortaz, kilometro askorik egin gabe.

**GAUR ZINEKLUBA, 22:30EAN**

Gaur, eguaztena, beste film bat eskainiko du Elgetako zineklubak. *Una noche en la ópera* izeneko filma ikusteko aukera egongo da Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean hasita. 1935ean egindako komedia da.



L.Z.

## Genoveva Villarrek, gaur, 100 urte

Eibarrera ezkondu zen eta bertan eman ditu azken 78 urteak. Nongoa den galdetuz gero, baina, Genovevak elgetarra dela esaten du. San Joan errekako Izalde baserrian jaio zen 1907ko urriaren 31n. Bost bat urterekin, Elgetako Egoetxeaga baserrira etorri zen bizi izatera. Indartsu dabil Genoveva. Oraindik ere jaki goxoak prestatzen dizkio semeari. Zorionak!

Maider Unda > Borrokalaria

# "Horren gogor borrokatutako gauza bat lortzea sinestezina da "

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

**Maider Unda borrokalari aramaioarrak 2008an Pekinen jokatuko diren Olinpiar Jokoetan parte hartuko du. Aramaioarrak bederatzi aldiz jarraian irabazi du Espainiako txapelketa eta munduko txapelketetan ere emaitza onak lortu ditu. Laster hasiko da Pekinerako gogor entrenatzen.**

**Aurrekoan, 2004an, atarian gelditu zinen, baina aurten lortu duzu Olinpiar Jokoetarako txartela. Zer ekarri dizu horrek?**

Horrenbeste borrokatutako gauza bat lortzea sinestezina da, pozgarria benetan; izan ere, Olinpiar Jokoetan parte hartu ahal izatea aurrerapauso garrantzitsua da niretzat.

**Nola ikusten duzu zeure burua Pekinen?**

Zortea da guztia. Hau da, zortedun egun batean dominak lor daitezke.

**Eta ezagutzen dituzu aurkariak?**

Bai, betikoak gara. Guztiok ezagutzen dugu elkar. Borroka librea ez da urte batetik bestera ikasten, urte asko behar dira; horrenbestez, urtetik urtera ez da nobedade handirik egoten.

**Hasi zara Olinpiadetarako entrenatzen?**

Apur bat, baina oraindik ez oso gogor. Urte osoan lanean ibili ostean deskantsatu ere egin behar da. Datorren hilean hasiko naiz lan fisikoarekin eta gero Gabonen inguruan alde teknikoa lantzen hasiko naiz.

**Herrialde batetik bestera borrokatzeko teknika desberdinak nabaritzen dira?**

Asko igartzen da, eta gehienbat entrenatzeko moduan. Hain zuzen ere, txinatarrak oso zorrotzak dira. Aurten Txinan egon gara, eta, egia esan, esperientzia gogorra izan zen.

**Lortu dituzun titulu eta domina guztiekin, beste kirol bat izanez gero famatua izango zinateke, ez duzu uste?**

Ba bai, baina nik nire lana tapizean egiten dut, borrokan, eta nire merituak niretako lortzen ditut eta ez beste batzuendako. Nik, gainera, fama ez nuke oso ondo eroango. Ez dakit, famak askotan presioa dakar.

**Borroka librea borroka hutsa baino gehiago da, ezta?**

Bai, teknika eta lan handia dago hor atzean. Ez da telebistan ikusten den modukoa. Hor imajinazio handia dago. Hau benetako borroka da, eta hor tentsio bat dago eta indar bat dago.

**Agresibitaterik badago borroka librean?**

Bai, batzuetan bai, eta hori ere behar da. Bestela ez duzu balio borrokarako, baina betiere neurrian. Epaile bat dago.

**Zer da borroka librea egitearen alde zailena?**

Kirol guztietan bezala, lesioak, hori ezin da kontrolatu eta gauzak gaizki doazenean desesperatu egiten zara. Nik, gainera, ez dut zorte handirik lesioekin: aurreko Olinpiar Jokoetan kanpoan gelditu nintzen lesio bat bestearen atzetik izan nuelako.

**Pekinera bidaia aprobetxatuko duzu inguruak ezagutzeko?**

Bai, hori da asmoa. Baina askotan oso nekatuta bukatzen ditugu txapelketak eta ez dugu inguruak bisitatzeko gogo handirik edukitzen. Horixe gertatu zitzaigun azkenekoz Txinan egon ginenean.

**Posible da borroka libretik bizi izatea?**

Orain bai, Olinpiadetara noalako. Baina bestela lan bat behar duzu. Nik neuk zortea izan dut, gurasoek baserrian eman didatelako lana. Baina bestela oso zaila da lana eta txapelketetako bidaiak konbinatzea.

**Zorte on Maider. Ziur gaude Olinpiadetan ere lan bikaina egingo duzula.**

Eskerrik asko. Hori lortzeko gogor egingo dut lan behintzat.

**"Fama ez nuke oso ondo eroango; nik niretako lortzen ditut dominak, ez beste batzuendako"**

**"Borroka libretik bizi izatea oso zaila da, nik zentzu horretan zortea izan dut"**

**"Kirol guztietan bezala, lesioak dira txarrena, lesioak ezin dira programatu "**

**"Txinatarrak oso zorrotzak dira, entrenatzeko era oso gogorra daukate "**



Maider Unda aramaioarra 2008ko Olinpiadetan izango da. GOIENKARIA

## Bailarako ordezkaria izango dugu 2008ko Olinpiadetan: Maider Unda borrokalaria

Maider Undak 30 urte dauzka. 10 urterekin hasi zen borroka librea egiten eta 21 urterekin hartu zuen borroka profesionalean aritzeko erabakia. Bederatzi urte pasa dira ordutik hona, eta bederatzi bider irabazi du Espainiako borroka libreko txapelketa. Erabaki zuzena hartu zuela esan daiteke, beraz. Europako eta Munduko txapelketetan ere emaitza oso onak lortu ditu; Europan seigarren postua da lortu duen onena eta munduko txapelketan, berriz, bosgarrena.

Otxandion ikasi zuen 14 urtera arte eta Gasteizen 19 urte egin arte. Elektronika ikasi zuen bertan, baina berehala konturatu zen elektronikatik baino gehiago, borrokatik bizi nahi zuela. Oletarra Gasteizen entrenatzen da, baina kanpora ere bidaia asko egiten ditu. 15 eguneko bidaiak izaten dira gehienetan. Horietan, entrenatu eta txapelketak jokatzen ditu. Espainiako txapelketa irabazita, Pekinen jokatuko diren Olinpiar Jokoak dira orain Undaren hurrengo erronka.

Borrokatzeaz gain baserrian ere lan egiten du Maider Undak. Gurasoak erretiratuta, berak hartu du orain baserriaren ardura. Gogorra dela aitortu digu, ganadua zaindu eta gazta egiteko baserrian egotea ezinbestekoa delako eta berak askotan kanpora joan beharra izaten duelako.



21 urterekin hasi zen borroka profesionalean eta bederatzi aldiz irabazi du Espainiako txapelketa. GOIENKARIA

**ZIKLO-KROSA** > OSINTXUKO LEHENENGO ZIKLO-KROSA

# Bihar itzuliko da ziklo-krosa ibarrera, Osintxun egingo duten lasterketarekin

Guztira lau lasterketa egingo dituzte; 10:00etan egingo dute lehenengo proba

Joan den astean indartsu daudela erakutsi zuten Unai Yusek eta Jone Muxikak




**AZKEN KONPONKETAK** Lasterketako antolatzaileak Unai Yusekin eta Saioa Olitekin, zirkuitua gainbegiratzen. X.U.

**Lasterketa dela-eta, auzo barruko autobus geltokia erabili beharrean, saihesbidean jarriko dute autobus geltokia**

**2,5 kilometroko ibilbidean, 800 metro errepidean egingo dituzte, 600 metro pista gainean eta gainontzekoa zelaian**

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bihar, azaroak 1, egingo dute Lokatzakoek Osintxuko Lehenengo Ziklo-kros Lasterketa. Hilabeteak daramatzate proba hori prestatzen, baina dagoeneko gertu dago dena. Hala, bihar Osintxura gerturatzen diren zaleek 10:00etatik izango dituzte lasterketak ikusgai, eta 13:00etan korrituko dute azkena, elite eta 23 urtez azpikoena.

**PUNTAKO TXIRRINDULARIAK**

Antolatzaileek aurreratu dute puntako txirrindulariak izango direla Osintxun. Esaterako, joan den astean Pobesko (Araba) lasterketan nagusitu zen Unai Yus denboraldiko bigarren garaipen bila etorriko da Osintxura. Orduan, Javier Ruiz de Larrinagak uste baino lan handiagoak eman zizkion –13 segundoko aldearekin helmugaratu zen–, eta badirudi bihar ere aurrealdean lehia polita izango dutela bi txirrindulari horiek. Horiekin batera, Erlantz Uriarte eta Markel Irizar izango dira bihar irteera puntuan, nahiz eta Irizarrek itzuli gutxi batzuk egingo dituen. Eta, orain arte mendiko bizikletan lehiatu diren Iñigo Roldan aretxabaletarra (13.a Pobesen) eta Zigor Urain arrasatearra ere lehiatuko dira Osintxun.

**ADI MUXIKAREKIN**

Jone Muxika elgetarrak ere lanak emango ditu bihar, bera da emakumezkoen lasterketarako faboritoetako bat. Muxika da Spiuk trofeoko liderra, dagoeneko bi lasterketa irabazi ditu eta hirugarren garaipena izango du buruan. Bergarako txirrindularien artean azpimarratu Kepa Varelak debuta egingo duela ziklo-krosean, Alfus-Tedesko mailotarekin.

Gazte mailan Xabier Aranzeta antzuolarrak ordezkatuko du Sumofic taldea, eta lasterketan izango da, baita ere, Ander Altube oñatiarra; kadetetan Aitor Laskurainek, Ander Telleriak, Jon Riverok eta Unai Retolazak korrituko dute.

**BI MALDA GOGOR**

Antolatzaileek aparteko ahalegina egin dute zirkuitua gogorra izan ez dadin, alde batera utzi gura izan dituzte malda gogorrak. Baina, martitzenean Unai Yus eta Saioa Olite izan ziren zirkuitua begiztatzen, eta antolatzaileak segituan konturatu ziren ibilbide gogor samarra izango dela: "Dena dela, zaila da guztien gustuko zirkuitua egitea. Batzuek malda txikiak gura dituzte, beste batzuek jaitsiera luzeak, ezin da denen gustua bete", esan zuen Yusek. Biharko faboritoak dagoeneko hartu dio neurria 2,5 kilometroko zirkuituari.

### Biharko lasterketako ordutegiak

| ORDUA | KATEGORIA |
|---|---|
| 10:00 | Elite mailako emakumezkoak, gazteak eta masterrak |
| 11:00 | Kadete mailako gizonezko eta emakumezkoak |
| 12:00 | Gazte mailako gizonezkoak |
| 13:00 | Elite maila eta 23 urtez azpikoak |

**ATLETISMOA** > KROSA

# Soraluze-Bergara krosa zapatuan

17:00etan hasiko dute hamar kilometroko krosa; 16:00ak arte egongo dira izenak hartzen

**X.U.** > BERGARA

Antxintxika Triatloi Taldeko ordezkariek astelehenean aurkeztu zuten Soraluze-Bergara krosa. Azaldutakoaren arabera, dagoeneko 100 lagun baino gehiagok eman du izena, eta tartean da Ritxar Fernandez, iazko azkarrena. Izenemateari dagokionez, jakin, oraindik ez zabiltzatela berandu, badago krosean partehartzea; horretarako, zapatuan bertan antolatzaileak 15:00etatik 16:00ak arte egongo dira izenak hartzen (10 euro).

**DENBORALDI ONA**

Antxintxikakoek aurtengo denboraldiaren gaineko balorazioa ere egin zuten, ona, duatloi krosean txapeldun izan direlako, errepideko duatloi txapelketan hirugarren, eta Euskadiko Triatloi Txapelketan Antxintxika bosgarren sailkatu delako –31 talde daude–. Horrekin batera, ezin da ahaztu Xabi Lekue taldekideak Hawaiiko Munduko Txapelketan egindako lana: bigarren sailkatu zen bere kategorian (35-39 urte bitartean).




**LASTERKA** Korrikalari talde bat, iazko proban, Soraluze eta Bergara bitartean. JOSETXO ARANTZABAL



**> TOPAGUNEA**
Euskal Herriko ikus-entzunezkoen III. rallya aurkeztu du asteon > 26



**> EH SUKARRA**
Egueneko ‘Musikantoi’ saioan Eibarko taldearen kontzertua > 30

**> MIREN ERRASTI**
Astean zehar Migel Altuna institutuan administrari lanak egiten ditu; asteburuetarako erromeriak ditu gustuko Angiozarko soinu txiki-joleak > 27





# Natura, kameraren objektibopean

**KRISTALEZKO IGELA** Kulturateko klaustroan ikusgai dagoen erakusketako argazki bat. EDWIN GIESBERS

BBCk eta Londresko Naturaren Historia museoak antolatutako 'Wildlife photographer of the year 2007' lehiaketako argazkiak, Kulturaten ikusgai

Azaroaren 2tik 25era bitartean egongo da Kutxak babestutako erakusketa; hain zuzen ere, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE
Etzi, egubakoitza, zabalduko dute Kutxak babestutako *Naturaren argazkilariak 2007* erakusketa Arrasateko Kulturateko klaustroan. Eta azaroaren 25era bitartean izango da zabalik, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

Hain zuzen ere, BBCk eta Londresko Naturaren Historia Museoak urtero antolatzen duten *Wildlife photographer of the year* lehiaketako argazki onenak batzen ditu erakusketak.

**LEHIAKETA ARRAKASTATSUA**
1964. urtean sortu zuten lehiaketa eta sekulako arrakasta du mundu zabalean. Argazkilari profesional zein afizionatuek hartzen dute parte. 43. edizioan, aurtengoan, bada, 78 herrialdetako 32.300 argazki jaso zituzten.

**92 ARGAZKI**
Naturaren askotariko aurpegiak jasotzen ditu bilduma horrek: lur, zeru eta uretako animaliak, landare eta zuhaitzak, urjauziak... Mundu osoan ateratako argazkiak dira. Erakusketan, epaimahaikideek aukeratutako 92 argazkiak daude ikusgai; horien artean, 2007ko argazki irabazlea: Göram Ehlme suediarrak ateratakoa.

Argazkiak bi eratan erakutsiko dira: paperean eta baita ikus-entzunezko muntaian ere.

Kulturaten ikusitakoak gustuko izan eta oroigarria nahi izanez gero, erakusketako bilduma jasotzen duen liburua erosteko aukera izango da; liburuaren salneurria 30 euro da.

**LEHIAKETA** > EUSKAL HERRIKO IKUS-ENTZUNEZKO RALLYA

# Topaguneak ikus-entzunezkoen III. rallya aurkeztu du Elgetan

Elgetan izango da, abenduaren 29an, eta Elgetako Kafe Antzokia izango da lehiaketaren epizentroa; azaroaren 27ra arte dago izena emateko epea zabalik.



**AURKEZPENA** Topaguneko eta Goibekoko arduradunek Elgetako Espaloia antzokian aurkeztu zuten lehiaketa, atzo. GOIENKARIA

**AITZIBER ARANBURUZABALA** > ELGETA
Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, ikus-entzunezkoen III. rallya aurkeztu du 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako. Aurtengoa Elgetan izango da, abenduaren 29an. Antolaketa lanetan herriko Goibeko kultura elkarteak ere parte hartu du.

Parte-hartzaileek, egun bakarrean, taldeka zein bakarka, hiru minutuko ikus-entzunezkoa egin beharko dute. Lehiakideek 09:00etatik 19:00ak bitartean ekoitzi beharko dituzte lanak.

Edizio lanak kafe antzokian egin ahal izango dira, baina aparailu guztiak lehiakideek eraman beharko dituzte. Aurkeztutako lanak jendaurrean erakutsi ondoren, sarien banaketa egingo dute; 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak eramango dituzte garaileek.

Lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea azaroaren 27ra bitartean dago zabalik. Parte hartzeko, *www.topagunea.org/rallya* blogean dagoen fitxa bete beharko da eta *gazteak2@topagune.com* helbidera bidali. Talde kopurua mugatua da.

**MUSIKA**

## Gospelaz gozatzeko sarrerak salgai

New Orleansko Joyful Gospel Choir, abenduaren 23an Amaia antzokian

**A.A** > ARRASATE
Azken urteotan bezala, aurten ere gospel doinuak entzuteko aukera izango da Gabon bezperatan Arrasaten.

Hori horrela, abenduaren 23an, New Orleansetik datorren Joyful Gospel Choir abesbatzaren emanaldia izango da Amaia antzokian, 20:00etan.

Abesbatzak soul-gospel eta rhythm and blues doinuak egiten dituen Joyful taldean du oinarri; taldeko koroak egiten zituen. Egun, historian bira gehien dituen gospel talde arrakastatsua da.

**SARRERAK ESKURAGAI**
Emanaldirako sarrerak dagoeneko salgai daude, Amaia antzokiko txarteldegian edo *www.kutxa.net* helbidean. 20 euroren truke.



**Miren Errasti** > Administraria eta trikitilaria

# "Gurean trikitizaleak egon badaude, baina erromerietara ez dira joaten"

Tekla eta botoiei zapaltzen abila da Miren Errasti. Aste barruan, hura ikasle izan zen Miguel Altuna institutuan dihardu lanean eta ordenagailu aurrean ematen ditu orduak teklak astinduz; aste bukaeretan erromerian soinu txikiari eragiten ez dabilenean hura da trikiti zein bestelako doinuekin dantza egiten duena. Angiozartik ere soinua esku artean duela etorri da.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

**Angiozarren bizi da, baserrian, baina denbora laburra ematen du bertan, etxetik kanpo ematen baitu denbora luzea, lanean ez bada lagun artean. Bere ametsa orain bezala luzaroan bizi izatea da; gustura bizi den seinale. Lanaz eta zaletasunaz berba egin digu Errastik.**



**Askok soinuarekin edo panderoarekin ezagutu arren, saguarekin edo teklatuarekin maizago ibiltzen zara, ezta?**

Aspaldian ordenagailuaren aurrean denbora luzea ematen dut, bai. Webgune bat egin genuen Eusko Jaurlaritzak eta Europako Gizarte Funtsak diruz lagunduta. *www.bizikasi.com* da helbidea eta helburua da animatzea jendea bizitza osoan barrena ikastera. Bertan sartzen ditugu bailarako hitzaldi, ikastaro eta intereseko hitzorduen berri, baita gida bat ikastetxeak, akademiak, elkarteak-eta jasotzen dituena. Izan ere, askotan ikastaroak antolatzen dira, baina jendeak ez du horien berri izaten, eta guk bitartekari lana egin nahi dugu herritarren eta erakundeen artean. Gainera, asmoa daukagu aurrerantzean jendearen beharrak zein diren ikusi eta horien arabera ikastaro berriak antolatzeko bideak jartzeko.

**Miguel Altuna institutuan abiatutako proiektua da.**

Aurrez baziren antzerako proiektuak, eta batetik eta bestetik ideiak hartuta Tolosako Institutu batekin eta hasiberriak diren Hamaikaweb informatika enpresakoekin elkarlanean egin dugu. Ideia Europatik dator, baina Miguel Altuna institutuak proiektua aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzan eta onartutakoan proiektua abian jartzeko ni hartu ninduten.

**Ikasketak Miguel Altunan bertan egin zenituen?**

Administrazio eta Finantzetako goi mailako zikloa egin nuen bertan eta amaitu eta berehala lana eskaini zidaten ikastetxean, eta han jarraitzen dut.

**Praktikak kanpoan egin zenitueneko denboraldia nola gogoratzen duzu?**

Ingalaterran egin nituen praktikak. Totnes European School-ekin joan ginen izen bereko herrira eta aldameneko herri batean egon nintzen bizi izaten bertako familia batekin hiru hilabetez. Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan zen. Lehen aldia zen etxetik kanpo denboraldi bat ematen nuena eta jende eta leku berri asko ezagutu nuen, baita beste kultura ezberdin bat ere. Hizkuntza maila, ingelesarena, pixka bat hobetzeko ere aprobetxatu nuen egonaldia.

**Ingalaterrara ere eraman zenuen soinua edo panderoa?**

Bai, soinu txikia eraman nuen. Eskolako azken egunean jo nuen agur modura. Pub batean ere egin nuen trikitia jotzeko saiakera, baina beste talde batek jo behar zuela-eta ez zidatzen utzi. Bestalde, etxean, hango familiakoekin egunero jotzen nuen, eta umeei pixka bat erakutsi.

**Angiozarkoa izanik soinua eta panderoa bai, baina ordenagailuarena arraroagoa da. Baserrira ere iritsi da teknologia?**

Bai, iritsi da, baina oraindik oso poliki. Internet konexioa ipintzeko zailtasunak daude; eta sakelako telefonoak estaldura izatea askotan miraria ere bada.

**Angiozar Bergarako auzoa dela entzuten duzunean?**

Angiozarren kalean gutxi egon arren, Angiozarko sentitzen naiz eta nongoa naizen galdetuta lehenago erantzungo nuke Angiozarkoa naizela Bergarakoa baino.

**Trikitia non jotzen duzu?**

Hemen inguruan auzoetako erromerietan, bazkari eta afarietan... Gainera, aurtengo udan Nurenbergen izan gara (Alemania), hango jaialdi batean jotzen. Irurtzungo dantza talde bat joatekoa zen, eta eurekin batera txalapartariak eta trikitilariak. Pol-Poleko Duniren bitartez aukera eskaini eta gu ere joan ginen. Frantziako iparraldean ibili ginen astebetez eta metroan, kalean... giroa jarri genuen trikiti doinuekin. Lagun askorekin jardun dut trikitia jotzen, baina azkenaldian Oñatiko Agurtzane Muxikarekin ibiltzen naiz eta asmoa daukagu aurrerantzean ere batera jarduteko erromerietan.

**Trikitizalea izanik, nola ikusten duzu trikiti giroa gurean?**

Zaleak egon bagaude, baina erromeria gutxi egiten da eta egiten direnean jendea ez da gerturatzen. Badirudi antzinako kontua iruditzen zaiola jendeari. Hala ere, giroa piztuz gero erantzuna izango lukeela uste dut. Ni neu ere giroa dagoen lekura batetik bestera mugituzalea naiz.







IRATI AGIRREAZALDEGI

## PERTSONALA

**Herria:** Bergara, Angiozar auzoa. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak?** Administrazio eta Finantzetako goi mailako heziketa zikloa. **Zaletasunak?** Lagunekin irtetea, trikitia, erromeriak eta mendi bueltak egitea. Gorrotoa. **Maniarik baduzu?** Iratzargailua jarri ostean hiru edo lau aldiz begiratzen dut ea ongi ipini dudan ziurtatzeko. **Musika talde bat?** Etzakit, The Solanos eta Izer eta Alabier trikitilariak. **Entzun duzun azken kontzertua?** Tapia eta Leturiarena Kilometroetan. **Bidaiatzeko toki bat?** Finlandia bisitatuko nuke.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zubiaurre 67 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Ibargarai. 40 m². Berria.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Artekale, 82m², ondo
- San Pedro, 72 m², ondo
- Zabalotegi, 80 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua
- Ibarra, 130 m², aukera ona
- Zubieta 70 m², ondo
- Matxiategi, 65 m², ondo
- Iparragirre, 195 m², berritzeko
- Aranerreka, 87m², ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70m², oso ondo
- Masterrekan etxebizitzak, 3 logela eta duplexak.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserria salgai 5 hektarea lurrekin. Solairu bakoitzeko 250 m² (2 solairu). Ura eta elektrizitatearekin. Irimoi auzoan. Paisai zoragarria eta errepide ona. 45.000.000 pta. (prezioa adostu daiteke). 943 76 62 98 edo 656 73 25 99.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai Herriko Plazan. 90 metro koadro; 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailuarekin. Kanpoaldera begira. 4 balkoi. Bizitzera sartzeko moduan. 943 76 65 03 edo 943 78 03 69.

**Aretxabaleta.** Erdigunean teilatupeko etxebizitza salgai. 72 metro koadro. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. 659 64 67 38.

**Arrasate.** 79m². Sukaldea, komuna, 3 logela eta egongela. Eguzkitsua. 39.500.000 pta. 688 62 68 88.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. Eraikin berria. 94,50 m². Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Igogailuarekin. 686 24 97 48.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Ferrerias kalean apartamentua salgai. Ganbara eta berogailuarekin. Aparkalekua aukeran. 656 78 23 19.

**Arrasate.** Zarugalden. 52 m², guztiz berritua. 246.400 euro negoziagarriak. 943 79 34 59.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m². 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 615 75 96 36.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 81 m². 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta trastelekua. Oso eguzkitsua. Egoera onean. 652 73 22 83.

**Bergara.** Elorregin 90 metro koadroko etxea, guztiz berriztatua. 100 metro koadroko ganbara dauka. Duplex bihurtzeko aukera. 218.000 euro, negoziagarriak. 666 70 59 90.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 90 metro koadro. Bizitzera sartzeko gertu. Ia guztiz jantzita. Telefonoa: 685 72 40 30.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Telefonoa: 619 41 39 72.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. Herri erdi-erdian. Egoera ona. 70 metro koadro. Hiru logela. Sukalde handia, balkoi bati begira. Gas bidezko berogailua. 17 metro koadroko ganbara. 230.000 euro. 671 94 07 68.

**Bergara.** Ibarra kalean etxebizitza salgai, berritua eta bizitzeko gertu. Berogailua. Jantzita. Bikote eta pertsona bakarrendako oso egokia. 50 m². 186.000 euro. 635 71 04 55.

**Bergara.** Iraburu kalean 100 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela-jangela, terraza handia eta dena kanpoaldera begira. 696 38 67 26.

**Bergara.** Martokon guztiz berritua dagoen etxebizitza salgai. Estreinatzeke. Bi gela, sala, sukalde handia guztiz jantzia, gasa, berogailua eta PVCzko leihoak. 637 55 14 04.

**Bergara.** San Lorentzon etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. 669 53 97 03.

**Elgetan** etxebizitza salgai, bigarren solairuan, igogailua, 3 gela, ganbara, aukera onean. 138.232 euro / 23.000 pezeta. Telefono: 645 71 76 25.

**Errioxa.** Alesanco herrian etxebizitza salgai. Etxabea da (bajo). Bi logela, bainugela, garajea, trastelekua, terraza, igerilekua. 24 m². Prezioa: 21.000 milioi pezeta. 678 35 96 08.

**Eskoriatzan** etxebizitza salgai, 80 metro koadro garajearekin. 686 92 55 71.

**Getarian** itsasoari begira 58 metro koadroko etxebizitza salgai. Estreinatu gabea. Telefonoa: 699 18 75 68.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Oñati.** 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

**Oñati.** 90 m²-ko etxebizitza salgai Moiua kalean. 33.000.000 pezeta. 943 78 11 48.

**Oñati.** Apartamentua salgai. Arantzazu kalean, Kalegoieneko plazara begira. Bi logela, sukalde-egongela, bainugela eta trastelekua. Argitsua eta egoera onean. 605 77 46 79.

**Oñati.** Apartamentua salgai. Arantzazu kalean. Bi logela, sukalde-egongela, bainugela eta trastelekua. Argitsua eta egoera onean. 605 77 46 79.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikitzen diharduten etxebizitzan. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea dauka. 670 85 85 41.

**Oñati.** San Lorentzon, eguzkitsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara. 52.000.000 pezeta / 312.000 euro. Garaje itxia aukeran (20 m²). Telefonoa: 656 74 80 47 edo 656 74 80 47.

**Peñiscola.** Apartamentua salgai, lorategiarekin. Peñismar II. urbanizazioan. 948 41 00 79.

**Soraluze.** Erdialdean dago. Hiru logela ditu, eguzkitsua da eta berrituta dago. 28 milioi pezeta. Deitu ezazue telefono honetara: 687 08 33 00.

**Zarautz.** Etxebizitza salgai Itsasmendi auzoan. Hiru logela eta bi komun. Egoera onean. Altzari eta guzti. 378.000 euro. Telefonoa: 665 02 66 23.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Uribe auzoan, lau logelako duplex batean logela bat errentan ematen da. 150 euro hilero. Berogailua, argia eta komunitatea barne. Telefonoa: 660 04 06 35.

**Arrasate.** Logela errentan ematen zaio bikote bati edo emakume bati. Erdigunean. Deitu ezazue telefono honetara: 650 96 23 08.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikote gazte batek etxebizitza errentan hartuko luke Aramaio edo inguruetan. 646 27 80 68.

**Aretxabaletan,** Eskoriatzan edo Arrasaten, etxebizitza errentan hartuko nuke. 606 62 95 47.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko genuke. Deitu ezazue telefono honetara: 943 25 01 42.

**Arrasaten.** Ama alaba batzuek etxebizitza hartuko lukete errentan. Deitu ezazue telefono honetara: 615 74 67 45.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 650 62 12 94 edo 943 53 30 61.

**Oñati.** Bikote batek etxea hartuko luke errentan. Presazkoa. Deitu ezazue telefono honetara: 649 42 26 30.

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergaran** edo Arrasaten. 943 78 70 16.

**Gela txiki** bat hartuko nuke errentan Gabonak arte Bergaran, edo bestelan Arrasaten, Antzuolan, Soraluzen... Telefonoa: 645 70 03 55.

**Oñati.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu ezazue telefono honetara: 687 72 62 29 edo 636 42 28 23.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Otalora kalean garajea salgai edo errentan. Telefonoa: 656 75 52 28.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. Deitu ezazue telefono honetara: 606 65 97 82.

**Eskoriatza.** Garajea errentan ematen da, Gaztañadui kalean. Deitu ezazue telefono honetara: 605 71 05 32 edo 943 08 11 15.

### 202. EROSI

**Oñati.** Apaolaza kale inguruan garaje edo trastelekua erosiko genuke. Deitu ezazue telefono honetara: 675 71 69 35 edo 605 76 63 87.

### 205. BESTELAKOAK

**Garajea** konpartitu nahiko nuke. Motorra edo quad bat gordetzeko. Deitu ezazue telefono honetara: 680 35 25 22.

BERGARA

**Taberna errentan ematen da.**

**943 76 54 75**

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Aretxabaleta.** Lokala salgai Gorbea kalean. 108 m². Telefonoa: 671 42 54 32.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena-Zumarraga** Taberna baten bila nabil errentan hartzeko. 661 17 48 07.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta atariak garbitzeko. 663 04 53 99.

**Bergara.** Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko 16:30etik 20:30era. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 628 48 52 34.

**Bergara.** Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko. Sukaldean ondo moldatzea beharrezkoa da. 628 48 52 34.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Deitu ezazue telefono honetara: 943 77 29 58 edo 680 61 96 98.

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Aretxabaleta.** Neska euskalduna gertu etxeko lanak egiteko. 660 04 60 58.

**Arrasate-Bergara.** Emakume bat gertu haur eta nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 628 52 34 06.

**Arrasate.** Emakumea edozein lanetarako gertu. 671 29 57 88.

**Arrasate.** Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interesatuek deitu astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara. 687 27 01 42.

**Arrasate.** Emakumea gertu edozein lanetarako. Deitu ezazue telefono honetara: 943 25 01 42.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest ordu bietatik aurrera haurrak zaintzeko, goizetan Haur Hezkuntzako ikasketak egiten ditudalako. Deitu ezazue telefono honetara:620 42 38 48.

ARAMAIO

**Zerbitzaria behar da aste bukaeretarako.**

**690 85 52 25**

**Bergara edo Arrasate.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta sukaldeko laguntzaile izateko. 664 38 49 76.

**Bergara edo Arrasate.** Mutil bat gertu zerbitzari eta argiketari lan egiteko. 638 54 96 72.

**Bergara-Arrasate.** Emakume bat gertu etxeko lanak egiteko. 664 57 07 74.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta haurrak nahiz nagusiak zaintzeko. 619 65 56 75.

**Bergara.** Emakumea prest edadeko pertsonak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 650 67 15 92.

**Bergara.** Gazte batek jaiegunetan eta astean zehar lan egingo luke. Paperak ditu. Telefonoa: 696 38 10 07.

**Bergara.** Mutil gaztea Bergaran lan egiteko prest. 600 65 45 33.

**Bergara.** Zerbitzaria behar baduzu, deitu! 30 urteko neska, esperientzia handiarekin. 656 75 50 07.

**Bergaran** edo Arrasaten. Emakumea gertu etxeko lanak egin edota adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. 943 76 04 18 edo 676 87 64 08.

**Debagoiena.** 19 urteko neska edozein lan egiteko gertu. Goizetan bakarrik. 690 70 91 46.

**Debagoiena.** Emakume batek umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Etxean bizi izateko gertu dago. Garbiketa, tabernari edo sukaldari lanak ere egingo lituzke. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakume batek umeak edo nagusiak zaintzen egingo luke lan. Garbiketa, tabernari edo sukaldari lanak ere egingo lituzke. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoiena.** Emakumea gertu asteburu eta jaiegunetan edadeko pertsonak zaintzeko. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak nahiz adinekoak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. 618 42 70 07.

**Debagoiena.** Emakumea prest pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, tabernari jarduteko edo garbiketa lanak egiteko. 671 25 00 22.

**Debagoiena.** Gazte batek jaiegunetan eta astean zehar lan egingo luke. Paperak ditu. Marcos. 696 81 10 07.

**Debagoiena.** Mutila prest pertsona nagusiak zaintzeko, tabernari jarduteko edo etxeko garbiketak egiteko. 627 65 02 71.

**Debagoiena.** Neska bat nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. 639 02 00 81.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu etxeak, atarteak zein lokalak garbitzeko. Telefonoa: 609 00 50 94.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta edadeko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Paperak erregelan dituen neska gazte bat etxeko lanak edo nagusiak zaintzeko gertu. Nahiago asteburuetan bada. Teresa. 649 63 23 24.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Norma. Telefonoa: 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Tabernak edo elkarteak garbitzeko gertu. 636 59 40 35.

**Debagoiena.** Umeak edo nagusiak zainduko nituzke (bertan lo egiteko prest), eta garbiketak, tabernari edo sukaldari lanak ere egingo nituzke. 619 92 40 86.

**Debagoiena** Emakume batek umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Etxean bizi izateko gertu dago. Garbiketa, tabernari edo sukaldari lanak ere egingo lituzke. 619 22 48 99.

**Lana.** Goizetarako edozein lan bilatzen ari naiz. 690 70 91 46.

**Oñati.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Telefonoa: 636 07 01 16.

**Oñati.** Neska gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko. 635 70 07 92.

### 403. BESTELAKOAK

**Arropa** lisatzen dut. Dagokion lekuan batu, neure etxean lisatu eta entregatu egiten dut. 656 75 04 43.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Aretxabaleta.** Batxilergoko matematika eskolak jasoko nituzke. 943 53 38 19 edo 675 71 44 12.

**Bergara.** DBHko 1. mailako eskola partikularrak hartuko nituzke etxean. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 76 03 75.

**Bergara.** DBHko 3. mailako eskolak hartuko nituzke etxean. 943 76 16 42.

**Debagoiena.** LHko laugarren mailan dabilen neska batek eskola partikularrak jasoko lituzke, etxean. Telefonoa: 943 77 15 58 edo 610 69 78 15.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingenieritza ikaslea LH edota DBHko eskola partikularrak emateko prest. EGA eta ingeles maila ona. Deitu ezazue telefono honetara: 625 74 91 50.

**Arrasate.** LHko eta DBHko eskola partikularrak emateko prest dagoen neska arduratsua naiz, gaztelaniaz edo euskaraz. Ingeleseko eskolak ere ematen ditut. Deitu ezazue telefono honetara: 679 23 25 64.

**Debagoiena.** Ingelesezko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Goi mailako ingeniari** industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu ezazue telefono honetara: 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4 TDI.** Bost urtekoa eta oso egoera onean. 12.000 euro. Aitziber. Deitu ezazue telefono honetara: 605 72 41 51.

**Audi A4** tdi salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. Deitu ezazue telefono honetara: 617 66 54 76.

**BMW** F650 GS motorra salgai. 2.500 kilometro ditu, bi urte eta hainbat osagarri. Egoera onean. 6.500 euro. 636 85 74 43.

**Beta 450** enduroko motorra salgai. Egoera onean. Telefonoa: Deitu ezazue telefono honetara: 615 00 84 49.

**Citroen C4** Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 14.000 euro. 627 93 55 74.

**GS-500** motorra. 5 hilabete. 17 hilabeteko bermea. 2.900 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 667 56 13 24.

**Honda XR 400R** mendiko motorra salgai. Merkea eta fidagarria, eta mantentze lan gutxikoa. Deitu ezazue telefono honetara: 677 98 42 94.

**Hyunday Tucson.** 112 zaldi. Diesela. 2 urte eta 24.000 kilometro. Oso egoera onean. Telefonoa: 669 54 89 16.

**Renault Megane** Coupe salgai. 1997koa. 161.000 kilometro. Oso egoera onean. 3.000 euro. 665 71 48 30.

**Renault Trafic** furgoneta salgai. 2005ekoa. 70.000 kilometro. Oso egoera onean. Telefonoa: 647 81 92 05.

**Rover 216** salgai. Merke-merkea. Deitu ezazue telefono honetara: 629 36 85 14.

**Seat Alhambra** monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi lagunentzako. Egoera onean. 50.000 km eta 2004koa. 20.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 653 71 04 56.

**Seat Cordoba** 1.4, 60 ZP autoa salgai. Gorria. 1.000 euro. 162.000 km. Deitu ezazue telefono honetara: 697 76 25 49.

**Seat Ibiza.** Gasolinazkoa. 60.000 km. Deitu ezazue telefono honetara: 617 86 59 48.

**Suzuki Samurai** autoaren lau hagun (llanta) salgai takodun gomekin eta beste lau errepideko gurpilekin. Deitu ezazue telefono honetara: 669 50 03 89.

**Suzuki** Katana R 503 scooter motoa salgai. 1999koa. Gutxi erabilia. Bi kasko ere bai. Deitu ezazue telefono honetara: 943 76 36 63.

**Volkswagen** California Tdi 102 ZP furgoneta. 95.000 km. 2001ekoa. 27.000 euro. Telefonoa: 649 34 82 92.

**Volkswagen** Polo 1.900 SDI Trent Line autoa salgai. 2000ko abuztukoa da eta 115.000 kilometro ditu. Direkzio lagundua eta airbag bikoitza ditu. 3.900 euro. Xabier. Deitu ezazue telefono honetara: 647 51 52 54.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak** salgai. Hiru hilabete dituzte eta kollie arrazakoak dira. Deitu ezazue telefono honetara: 659 34 89 86.

### 703. EMAN

**Yorkshire** arrazako txakurra opari ematen dut. Arra da, gris kolorekoa, bi urte ditu eta maitakorra da. Deitu ezazue telefono honetara: 616 45 00 20.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** Gela baterako altzariak saltzen ditut. Lizar egurrezko zubi-altzari bat eta 1,20 metroko ohea. 900 euro. Eskarne. 680 98 60 15.

**Egurrezko** bi mahai (90x72 cm) eta bi mahai obalatu (1,20x59 cm) salgai. 607 46 83 66.

**Errepideko bizikleta** salgai, Zeus etxekoa, 56 neurrikoa. Shimano 105. Egoera onean dago. Sigma BC 800 abiadura neurgailua oparitzen dut. 400 euro. 667 08 93 09.

**Karabana** saltzen da. Egoera onean dago. 610 81 25 21.

**Kronometroa.** Kronometro berria salgai. 125 eurotan. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

**Mahai** obalatua salgai, luzagarri eta guzti. Neurria: 140x92 zentimetro. 200 euro, negoziagarriak. 617 17 15 88.

**Ume-kotxea.** Mutsy-Urben Rider markakoa. 125 euro. Telefonoa: 648 66 82 93.

**Umearendako eserlekua.** Automobilean jartzekoa. Baby Confort markakoa. 60 euro. 648 66 82 93.

**Umearendako motxila.** Deiter Baby City markakoa. 30 euro. 648 66 82 93.

**Uso postuak.** Hiru uso postu salgai Urizaharran (Peñacerrada). 630 72 33 93.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Umearen txamarra galdu dut. Bakero txaketaren itxura du, beix kolorekoa da eta Bass markakoa. Telefonoa: 659 92 49 31.

**Bergara.** Urrezko eraztuna galdu nuen Martoko eta Espoloia bitarteko bidean. Eraztunak “Elisa 2-10-63” inskripzioa dauka. Eskertuko da. 659 77 01 71.

**Debagoiena.** Ezkontzako eraztuna galdu nuen urriaren 22an Aretxabaletan edo Arrasaten. 2007ko abuztuaren 25a data du inskripzioan. 659 62 02 49.

### 807. AURKITU

**Aretxabaletan** mendiko bizikleta bat aurkitu dugu. Helduena da. 943 79 30 02.

**Argazki** kamera digitala aurkitu nuen urriaren 28an Arantzazun. 943 77 01 23.

**Eskumuturreko** bat aurkitu nuen Bergaran geltoki ondoan. 695 73 45 76.

**Olympus.** Kilometroen egunean Olympus markako kamera digitala aurkitu genuen autobus geltokian. Maritxu Kajoi eguneko argazkiak ditu barruan. Nerea. 699 09 47 76.

**Urrezko belarritakoa** aurkitu nuen Bergarako trenbide zaharrean urriaren 22an. Deitu ezazue telefono honetara: 615 71 70 68 edo 943 76 43 31.

### 808. BESTELAKOAK

**Gasteiz-Bergara** ibilbidea astegunetan, egunero, automobilez egiten duen norbaitekin jarri nahi nuke harremanetan, bidaia-gastuak konpartitzeko asmoz. Deitu ezazue telefono honetara: 645 70 03 55.

## hildakoak

- **Angel Arantzabal Albizu.** Bergaran, urriaren 15ean. 77 urte.
- **Josu Bolinaga Aretxaga.** Bergaran, urriaren 15ean. 43 urte.
- **Manuel Garcia Pan.** Arrasaten, urriaren 22an. 72 urte.
- **Maria Cruz Arregi Loidi.** Arrasaten, urriaren 25ean. 89 urte.
- **Rogelia Arango Diez.** Arrasaten, urriaren 25ean. 87 urte.
- **Pakita Berasategi Sarriegi.** Bergaran, urriaren 26an. 84 urte.
- **Pilar Sañudo Lasagabaster.** Bergaran, urriaren 28an.
- **Margarita Lasagabaster Okina.** Aretxabaletan, urriaren 28an. 96 urte.



**Alex Michbronn** arrasatearra eta **Nerea Morgado** eibartarra zapatuan ezkonduko dira, Kexaan (Araba), Virgen del Cabello kaperan, 12:30ean. Gero, bazkaria egingo dute Los Arcos de Quejana jatetxean. Zorionak eta ondo ibili! Lagunen partetik.



**Maitane Olabarria** eta **Jon Pescador** zapatuan, urriaren 27an, ezkondu ziren Antzuolako udaletxean. Mexikora joan dira eztei bidaia egitera, eta gustura ibiliko dira han eguzkiaz gozatzen. Zorionik beroenak etxekoen eta lagunen partetik, bikote!

ESKELA

## Josu Bolinaga Aretxaga

Bergaran hil zen 2007ko urriaren 25ean, 43 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*



Zure lagunak.
Bergaran, 2007ko urriaren 31n.

ESKER ONA

## Pablo Ayastuy Madina

Oñatin hil zen 2007ko urriaren 21ean, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2007ko urriaren 31n.

## Manuel Aizpurua

*Pausoka Haur Eskolako danon partez
patxo bat Gure Olentzerori.*



Aretxabaletan, 2007ko urriaren 31n.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara
eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.**



ESKER ONA

## Angel Arantzabal Albizu

Donostian hil zen 2007ko urriaren 25ean, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urriaren 31n.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

- Zerbitzu etengabea 365 egunean
- Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…
- Erantzun azkarra, tratu pertsonala
- Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan
- Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak
- Bete beharreko tramiteak
- Gorpua prestatu eta dotore ipini
- Zerraldo aukera, denetariko prezioak
- Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 /
Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## berriak

> ERREPORTAJEA

### Gatzagako Gatz Museoa bisitatuko dugu Iriondorekin

Julen Iriondok ekoiztutako beste erreportaje bat ikusteko aukera izango duzue Goiena Telebistan datorren astelehenean. Leintz Gatzagako turismo bulegoko langile Aitziber Gorosabelekin Gatz Museora egingo du bisita Iriondok, baina ez hori bakarrik; izan ere, Gatz Museoa bisitatzeaz gain, Dorletako santutegira ere joango dira, eta baita Gatzagako beste txoko batzuk ikustera ere.

> 'HARMAILATIK'

### Ziklo-krosa eta Soraluze-Bergara lasterketa ikusgai

Ezin esan asteburuan ez dela kirol eskaintzarik Debagoienean. Izan ere, ziklo-krosa eta Soraluze-Bergara lasterketa izango ditugu ikusgai. Xabier Urtzelai GOITBko langileak, astelehenero bezala, asteburuan kirol alorrean gertatutakoen berri emango du, hark zuzentzen duen *Harmailatik* saioan. Horrez gain, asteburuak utzi dituen gainontzeko kirol jardueren berri ere emango du.

> ARRASATE IRRATIA

### Osoko bilkura eta 100 eguneko balorazioa datorren astean

Azaroko lehen egunekin batera egingo du du Udalak osoko bilkura. Ezustekorik ezean, eguenean egingo dute, azaroaren 8an, 19:00etan; beraz, astearen amaiera alde horretan landuko dugu bilkura horrek emandakoa. Bestalde, pasatu dira agintaldi berriaren hasierako 100 egunak. Bada, ohiturari jarraitu eta egun horien gaineko balorazioa egingo dute alderdi politiko guztiek.

> ARRASATE IRRATIA

### Albistegi zerbitzua indartzeko egitasmoak aurrera segitzen du

Asteburu luzearen ostean, edukiz beteta dator azaroko lehen astea. Bestelakoen artean, teologiaren gaineko ikastaroa hasiko da. Baita osasun mentaleko boluntario lanaren gaineko formazio saioak ere. Horrez gainera, Elkarhezitzen proiektuak Genero eta Lankidetza Topaketa antolatu du Aretxabaletako Galartza etxean, asteburuko. Hori guztiori xehetasunez landuko dugu Arrasate Irratian.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# EH Sukarra taldearen kontzertua 'Musikantoi'-n

EH Sukarra taldeak Mutrikuko Venezia aretoan eman zuen kontzertua osorik ikusteko aukera



**EH SUKARRA** kontzertuan. GOIENKARIA

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Bihar, eguena, *Musikantoi* saioa egongo da gaueko hamarretan hasita. Bertan ikusi ahal izango duzue EH Sukarra talde eibartarrak Mutrikuko Venezia aretoan eman zuen kontzertu osoa. Euskal talde hori euskal musikagintzan historia egin duten horietakoa da. Eibarren sortu zen, 1989an. Lehenengo kontzertua Soraluzeko gaztetxean eman zuten, 1990eko uztailean. Hurrengo urtean Euskadi Gazteko maketa lehiaketa irabazi zuten eta 1992an argitaratu zuten iraupen luzeko lehenengo diskoa: *EH Sukarra*.

**'ZU KAZETARI'** > EGUAZTENA 21:45

# 'Marraskilo' eskaladaren gaineko filma eskainiko dute 'Zu Kazetari' saioan gaur

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Ordiziako Luis Mari de Juan Irastorza *Pintxo* da filmaren gidoia eta errealizazioa egin dituena. *Marraskilo* eskaladaren gaineko grabazioa da. 1987an elur-jauzi baten ondorioz Pirinioetan hil zen *Marraskilo*-ren omenez egindako filma da. Protagonistaren izena Mikel da eta *Marraskilo* zenaren izaera islatzen du. Gaur egungo gizartearen adierazgarri diren indibidualismoa, egoismoa eta protagonismo gosea, umiltasunarekin eta laguntasunarekin kontrajartzen ditu zuzendariak. Lagun handia zuen *Marraskilo*, eta *Pintxo*-k beti izan du haren omenezko grabazio bat egiteko gogoa. *Marraskilo*-ren grabaketarekin amaitu zuenean, lasai lo egin ahal izan zuen.

Demokrazia, lehiaketa eta halako kontzeptuek garrantzi handia hartzen dute grabazioan, eta haien kritika zorrotza egiten du zuzendariak. Mikel Saez de Urabain, Javier Mutiloa, Maria de Juan Razkin, Manu Beriain, Alberto Aranburu, Rikardo Otegi eta Josune Bereziartu dira eskalatzaileak.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

### Etsipena

Hasi dira harrotzen *Escenas de matrimonio* telebista saioaren inguruko hautsak. Ordutegi horretan gustuko beste programa batzuk neuzkanez eta "bost segundoko testa" pasa ez zuenez, alboratua nuen, hain famatua bilakatu den saioa.

Gero, Radio Euskadin ditxosozko programa hartu zuten berbagai eta aurrerago *Berria*-n eskaini zioten zutabetxo bat. Interneten ere asko dira saioari buruzko erreferentziak. Asko, bai, gaztelerazko nazka.

Hori sortzen dit *E de M* delako saioak. Eta ez da pertsonaia bakoitzak bere bikotekidearekiko erakusten duen errespetu faltagatik. Ezta ere, txiste erraz eta topikoz josia dagoela. Are gutxiago, antzerki narrasetako gidoia, deklamazioa, testura, dikzioa, erritmoa duelako, baizik eta etsipena sortzen didalako.

Nola liteke hain gogoz kontra elkarrekin bizi eta estimu gutxian duzun pertsonarekin segitzea. Bikotean iraute hutsa ezin da helburua izan. Eta telesaioan, umore kaustikoaren itzalpean, aldatzeko gaitasuna ez duten pertsona(ia)k ageri zaizkigu.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
*Ilunpean* saioan elkarrizketa, *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak *Zaharrak berri* saioan eta beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguaztenera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31 *irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Eguena, 1**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30** Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15** Klipa. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** Zaharrak berri. **14:30** Teknopolis. **15:00** Berbaire. **15:30** Gertutik. **16:00** Animalia. **16:30** Ilunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Erreportajea. **19:30** Klip@. **20:00** Ur eta lur. **20:30** 2x2. **21:00** Jazmina. **21:30** Berbaire. **22:00** Musikantoii. **22:30** Zu kazetari. **00:00** Jazmina. **00:30** Emisio amaiera.

**Egubakoitza, 2**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00** Solasta. **11:30** Musikantoi. **12:00** Jazmina. **12:30** Klipa. **13:00** Eltze beroa. **13:30** Animalia. **14:00** Zu kazetari. **15:00** Ikusmira **15:30** Marrazki bizidunak. **18:00** Mexiko lindo berezia. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea. **21:00** Jazmina. **21:30** Musikantoi. **22:00** Astekoak. **22:00** 2x2. **23:00** Solasta. **23:30** Ilunpean. **00:00** Musikantoi. **00:30** Emisio amaiera.

**Zapatua, 3**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30** Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15** Klipa. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** Errugbia. **15:00** Berbaire. **15:30** Solasta. **16:00** Gertutik. **16:30** Ilunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Animalia. **19:30** Klip@. **20:00** Ur eta lur. **20:30** 2x2. **21:00** Jazmina. **21:30** Berbaire. **22:00** Errugbia. **23:30** Musikantoi. **00:00** Jazmina. **00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 4**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00** Solasta. **11:30** Musikantoi. **12:00** Jazmina. **12:30** Zu kazetari. **13:30** Animalia. **14:00** Berbaire. **14:30** 2x2. **15:00** Ikusmira **15:30** Marrazki bizidunak. **18:00** Errugbia. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea. **21:00** Jazmina. **21:30** Musikantoi. **22:00** Mexiko lindo berezia. **23:30** Ilunpean. **00:00** Musikantoi. **00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 5**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15** Eltze beroa. **14:45** Berriak. **15:15** Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ikusmira. 1**8:15** Ikusten. **18:45** Berriak. **19:15** 2x2. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15** Harmaillatik. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45** Berriak. **23:15** Harmaillatik. **22:45** Gaurkoak. **23:30** 28 Klipa. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 6**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Horry. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea. **14:15** Harmaillatik. **14:45** Berriak. **15:15** 2x2. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15** Eltze beroa **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15** Musikantoi. **18:45** Berriak. **19:15** Harmaillatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15** Animaliak. **22:45** Berriak. **23:15** Ikusmira. **22:45** Gaurkoak. **23:30** Getutik. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 7**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Ikusmira. **14:15** Eltze berioa. **14:45** Berriak. **15:15** Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Animaliak. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 2x2. 1**8:15** Harmailatik. **18:45** Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45** Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15** Hitzbitan. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Zu kazetari. **22:45** Berriak. **23:15** Teknopolis. **22:45** Gaurkoak. **23:30** Jazmina. **00:15** Emisio amaiera

**Eguena, 8**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zaharrak berri. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15** Zu kazetari. **14:45** Berriak. **15:15** Ikusmira. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ur eta lur. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. 1**8:15** Kirolari. **18:45** Berriak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry. **20:45** Berriak. **21:15** Erreportajea. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Berbaire. **22:15** Musikantoi. **22:45** Berriak. **23:15** Hitz bitan. **22:45** Gaurkoak. **23:30** Teknopolis. **00:15** Emisio amaiera

# Urriak 31 azaroak 9

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Ikus-entzunezkoa




dELGETA

**> Patxi Usobiagak ikus-entzunezkoa erakutsiko du Espaloia Kafe Antzokian**

Patxi Usobiaga Eibarko eskalatzaileak *Pisugabezia* izeneko ikus-entzunezkoa erakutsi eta azalduko du. Azaroaren 8an, eguena, izango da hori, 20:00etan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

## Zinea



ARRASATE

**> Nagusi zein haurrendako lau film emango dituzte egunotan Amaian**

Umeendako, azaroaren 3an *Movida bajo el mar* filma emango dute, 17:00etan. Nagusiek ikusi ahal izango dituzte: *Mataharis* azaroaren 2an (22:00); 3an (19:30) eta 5ean (20:30). *Caotica Ana*, 1ean, eta *Bajo las estrellas*, 8an; biak ala biak, 20:30ean.

## Musika



ARRASATE

**> Liga Quintana taldeak kontzertua egingo du egubakoitzean, 3.60 aretoan**

Frantziako Liga Quintana taldeak kontzertua egingo du egubakoitzean, azaroaren 2an, Arrasateko 3.60 aretoan. Harekin batera, Noviembre taldeak ere egingo du kontzertua. Saioa 23:00etan hasiko da eta prezioa da 6 euro.

## Antzerkia

ARRASATE

**> 'Aullidos' izeneko antzezlana egingo du Teatro Corsariok**

Fantasia, erotismoa eta umore beltza dira antzezlan horren oinarri.

Azaroaren 4an, domeka, 19:30ean, Amaia antzokian.

BERGARA

**> 3 eta 6 urte bitarteko haurrendako antzerki emanaldia**

*Marilo beti lo* delako haurrendako antzerkia ikusteko aukera izango da Agorrosin ekintzagunean, Kutxaren laguntzarekin. Gehienez 50 umerendako lekua egongo da.

Azaroaren 4an, domeka, 17:00etan.

## Hitzaldiak

OÑATI

**> Autonomoendako lege berria izango dute berbagai**

Txanda dendarien elkarteak antolatu du. Bi saio egingo dituzte eta interesa duten guztiak joan daitezke.

Azaroaren 6an eta 8an, 20:15-22:15 ordutegian, Santa Ana antzokian.

## Erakusketak

ARRASATE

**> 'Naturaren argazkiak 2007' delako erakusketa**

Naturarekin lotutako argazkiek osatzen dute erakusketa hori. 17:30-20:30 ordutegian egongo da ikusgai.

Azaroaren 2tik 25era, Kulturateko klaustroan.

ELGETA

**> Emilio Mandalunizek erakusketa jarriko du**

Mandalunizen margolanak Espaloia Kafe Antzokian ikusi ahal izango dira.

Bihar, eguena, hasi eta azaroaren 25era arte.

BERGARA

**> Nieves Medela arrasatearraren lanak Nahikari tabernan**

Arrasateko margolariak olio-lanak zintzilikatuko ditu Nahikariko paretetan.

Bihar, eguena, hasi eta azaro bukaera arte.

OÑATI

**> 'Batetik-Bestera' delako udako argazkien erakusketa**

*Batetik-Bestera* udako argazki lehiaketara aurkeztutako 23 argazkiak ikusgai daude gaztelekuko kuboan. Ikusleak izango dira lanok epaituko dituztenak eta lehiaketako irabazleak aukeratuko dituztenak. 200 eta 150 euroko sari bana emango dituzte.

Erakusketaren azken eguna gaur, urriak 31, da ( 18:30etik 20:00etara).

BERGARA

**> Matias Azkarate margolariak erakusketa du ikusgai**

15 margolan zintzilikatu ditu Azkaratek Nahikari tabernako paretetan. Natura hilak eta paisaiak dira, batik bat, Ricardo Azkargortaren ikaslearen lanen ardatza.

Gaur, eguaztena, da erakusketaren azken eguna.

BERGARA

**> 'Tratu txarren aztarnak' delako erakusketa**

Avaim elkartearena da erakusketa eta Udaleko Ongizate sailak ekarri du herrira. Tratu txarrak jasan dituzten umeek egindako marrazkiek osatzen dute erakusketa hori.

Azaroaren 7ra arte egongo da ikusgai, kultura etxean.

## Lehiaketak

BERGARA

**> Kartel lehiaketa deitu du BEKE emakumeen elkarteak**

Azaroaren 25ean ospatuko den emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren harira antolatu dute. Lana egiteko teknika eta erabilitako kolorea libreak dira. Derrigorrez eroan behar du honako testua: *Emakumearen aurkako indarkeriarik ez!*

Lanak aurkezteko epea da azaroaren 20a, kultura etxean.

## Ikastaroak

ARRASATE

**> Yoga ikastaroa Txindoki dorrean**

Astelehen eta eguaztenetan izango dira eskolak, 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan, 19:15etik 20:45era. Egoitza dago Txindoki dorrean: Bañez Doktorea 1.

Izena emateko edo informazio gehiagorako: 635 71 06 16 (Maite) eta 943 78 31 26 (Ana).

DEBAGOIENA

**> Keinu hizkuntza ikasteko eskolak antolatu dituzte**

Aransgi elkarteak antolatu du ikastaroa, Bergarako Udaleko Ongizate Sailaren laguntzarekin. Ikastaroa urtarrilean hasiko da eta gaiarekin interesatuta dauden debagoiendar guztiek har dezakete parte. Ikastaroa Bergaran izango da, Aransgi elkartearen egoitzan. Eskolak izango dira martitzenetan, 19:00-21:00 ordutegian. Sakontze maila ere emango dute. Ikasle kopurua mugatua da; hortaz, lehentasuna izango dute gorren senitarteko eta lagunek. Matrikulak 85 euro balio du.

Izena emateko jo Aransgira edo deitu 943 76 27 03 zenbakira.

ARRASATE

**> Osasun mentaleko boluntariotzaren gaineko formazioa**

Arrasateko Aita Menni ospitaleko Ahizpa Ospitalarien boluntariotza elkarteak eta San Juan de Dios ospitaleko boluntariotza elkarteak, osasun mentaleko boluntariotzaren gaineko formazio ikastaroa antolatu dute. Azaroan izango dira eskola horiek. Izena emateko epea bukatuko da azaroaren 6an. Horretarako jo Arrasateko Udaleko Prebentzio zerbitzura edo deitu 943 25 20 07 telefono zenbakira.

BERGARA

**> Taila ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute**

Bergarako Taila Eskola kultura elkarteak antolatu du ikastaroa. Eguaztenetan izango dira eskolak, 18:00-20:00 ordutegian, Zabalotegi dorrean duten egoitzan. Ikastaroa hasiko da azaroaren 7an eta iraungo du maiatzera arte.

Izena emateko jo Zabalotegi 11n duten egoitzara eguaztenetan, 18:00-20:00 ordutegian.

## Zinema

ELGETA

**> Nagusi zein haurrendako filmak**

Gaztetxoenen kasuan, *Pipi Galtzaluze* ikusteko aukera izango dute azaroaren 4an, domeka, 17:30ean. Helduendako zineklubean, berriz, emango dute *La vida de los otros* filma. Azaroaren 7an, eguaztena, izango da hori, 21:00etan.

Espaloia Kafe Antzokian.

PROPOSAMENA

BERGARA

### > Kilometroak 07 gai hartuta argazki erakusketa jarri dute Aroztegi aretoan

Aranzadi ikastolak antolatu eta urriaren 7an ospatu zen Kilometroak jaian ateratako argazkiak ez ezik, urte osoan barrena egin diren ekitaldietakoak ere ikus daitezke. Guztira 42 argazki dira, 40x50 neurrikoak, denak koloretan. Argazkien egileak dira: Aitor Usobiaga, Javier Vicente, Luis Fernandez, Josetxo Arantzabal (GOIENKARIAko argazkilaria) eta Jose Mari Lopez.

Azaroaren 2tik 9ra egongo da ikusgai, astebete.



# Txuringo, osintxuarren esku

**AUZOTARREN EKIMENEZ** Osintxuko bizilagunek zabaldu dute gaur Txuringo taberna; txandaka egingo dute lan

**BIZITASUNA** Taberna horrek Bergarako auzoari sekulako bizitasuna ematen diolako erabaki dute berriro ere zabaltzea

**JANTOKIA** Azken hilabeteotan Soraluce enpresako jantokia izan da Txuringo; bi aldeak adostasunera iritsi dira

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Osintxu erdi-erdian, pilotalekuaren parean dagoen Txuringo tabernak joan den urteko abenduan itxi zituen ateak. Eta, herrian bertan dagoen Soraluce enpresa martxoan hasi zen taberna erabiltzen, langileendako jantoki modura. Ateak itxi eta berehala konturatu ziren auzokideak taberna horrek Osintxuri zelako bizitasuna ematen zion: "Taberna Osintxu erdian dago, plazan, eta hemen jende asko batzen zen lehen. Gainera, Soraluzetik eta Bergaratik ere lagun asko etortzen ziren paseatzen, eta bertan egiten zuten geldialdia", adierazi du Osintxuko bizilagun Belen Arrutik.

**GAURTIK AURRERA, ZABALIK**

Zer galdu zuten ikusita, auzokideak lanean hasi ziren, Soraluce enpresarekin adostasuna lortu eta Txuringo tabernaren zati bat lehenbailehen erabili ahal izateko. Gaurtik aurrera –19:00ak aldera zabalduko dute, luntx eta guzti–, Txuringo berriro ere izango da osintxuarren taberna. Eta osintxuarrena diogu, auzokideak izango direlako tabernaz arduratuko direnak: "Gure asmoa da inor taberna hartzera animatu arte osintxuarrok txandaka lan egitea. Egubakoitz gauetan, zapatuetan eta domeketan egongo da taberna zabalik [oraingo zubian egunero zabalduko dute], ea plaza inguru horrek lehengo bizitasuna hartzen duen", adierazi du auzoko alkate Luis Mari Alberdik.

**BIHAR, GIRO EDERRA**

Taberna hori barik Osintxu hilda geratu dela diote bizilagunek, eta bihar bestelako aurpegia erakutsiko du Bergarako auzoak. Osintxuko bizilagun batzuk burubelarri ibiliko dira ziklo-krosa antolatzeko lanetan –asko izango dira–, eta beste batzuk tabernan izango dira, hara gerturatuko diren guztiei zerbitzua eskaintzen. Guztien helburua, baina, bakarra izango da, bizilagunen esfortzuarekin Osintxu biziberritzea, alegia.



**ELKARLANEAN** Erretratuan, Joseba Etxaniz, Maribi Peñez, Cristina Agirre eta Belen Arruti taberna barruan. X.U.

## ahobero

### "Alderdi Popularrak inoiz ez dio eutsi konspirazioaren teoriari, ez gara teoria horren erantzule izan"

**Angel Acebes**
> PPko idazkaria martxoaren 11ko atentatuaren gainean.

Askotan, albistegiak errealitatea kontatzeko erreminta surrealista bilaka daitezke, eta bertan azaltzen diren pertsonaiak eta haien adierazpenak, are eta surrealistago. Tamalez, erreala da oso.

## iturri onetik

### Bergaran egingo dute hurrengo Mundumira jaialdia, seguru aski ekainean

Aste barruan erabaki du Bergarako Udalak datorren urteko Mundumira jaia Bergaran egitea. Aurreko jaiak Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan egin eta gero, 2008an Bergarak hartuko du errelebua.

Oraindik zehazteke dago noiz egingo duten Mundumiraren laugarren edizioa, baina Udalak ekaina erdialdean egin gurako luke. Orain, Mankomunitatearekin zehaztu beharko dute hori.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Kultura atean

Egubakoitz honetan suertatuko zait Kutxaren izenean hitz egin beharra, Kulturateko erakusketa baten irekiera dela-eta. Izan ere, erakusketa horren antolatzaile eta babesle da nik ordezkatuko dudan erakundea.

Eta oso pozik egingo dut enkargua. Debagoieneko lantaldea erakundean eragiteko ahaleginean gabiltza, haren jardunean ohiko bihur dadin ibarrean ere kultura eskaintzea, hiriburuan eta inguruetan baden bezalaxe. Oro har, denok ere indar gehiago egin beharko genuke Gipuzkoa desorekatu honetan debagoiendarrak ez gaitezen izan pagatzaile handi eta erabiltzaile eskas. Ez dezagun kilometro mordoa egin behar izan goi mailako erakusketa edo kontzertu bat eskura izateko. Egubakoitzekoa izan bedi bide horretan hasierako urratsa!

## ai, ene!




### Jende ezaguna non lurperatu duten jakiteko

Bilatzaile xelebre asko dago Interneten, baina horrelakorik... Jende ezaguna non lurperatu duten bila daiteke bertan.

http://www.findagrave.com




BETE EZAZU ZURE YARIS AUTOA BIZIPENEZ.

**Toyota Yaris 1.3 87 ZP 100 € hilean***
Aire girotua, 15” aleaziozko hagunak eta Bluetooth Stereo.

*Toyota Yaris Blue 1.3 3 ate. 87 ZP. Publikoarentzako salmenta prezio gomendatua 12.650 euro. 84 hilabetetara finantzatua. Finantzazioak irauten duen denboran 100 eurotako kuota hilean. Sarrera 5.549 euro. Irekitze komisiorik gabe. TIN %4,89. TAE %5. Atzeratutako prezio totala 13.949 euro. 2007ko urriak 31ra arte baliogarria. Espainiako Toyota Kredibank GmBH sukurtsalaren eskaintza finantzieroa. Publikoarentzako salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga eta promozioa barne. Prever plana EZ dago barne. Iragarkiko modeloa: Toyota Yaris Sol 3 ate, aleaziozko hagunak aukeran. CO2 (g/km) igorpena: 119 eta 141. Kontsumoa media (l/km): 4,5 eta 6,0.

BERMEA 3 urte edo 100.000 Km. FINANCIAL SERVICES TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI